

luma berrien eleak

2011ko ekaina
www.idazten.com
9. zb. 3 €

idazle berrien sorlanak, iritzi eta gogoetak, narrazioak, antzerkiak, poesiak...



*« aurrera:
da norabait,
gelditu ostean »*

Karmele Igartua Bengoa



Idazle Eskola

Idazketa Literarioa eta idazketa profesionala

Hezkuntza Sailak Homologatua

GRADUONDOKOA



Eskola presentzialak (larunbatetan) eta telematikoak



HELBURUAK:

- Gonbidatutako idazleak bere obra nola idatzi duen jakinaraztea eta bere obra ezagutaraztea.
- Gonbidatutako idazleak bere obra idaztean irakurri dituen edota idatzi ezin izan dituen beste liburuekin sortzen diren harremanez aritzea.
- Idazle baten obra jakin bati buruzko hausnarketa kolektiboa piztea. IDAZLE ESKOLAKO ikasleen artean, eta horrekin batera, irakurlearen pertzepzioaz hausnartzera bideratzea.

INFORMAZIOA:



www.idazten.com
http://eskola.asmoz.org



Mugikorra: 639456204

IDAZKARITZA:

UNED. San Martin Agirre plaza, 4. 20570 BERGARA

ASMOZ Fundazioa. Asuncion Etxea.
Joseba Elozegi alkatearen hiribidea, 275.20015. DONOSTIA



UNED: 943 212369 (Asteartetik larunbatera)
ASMOZ : 943-326398

E-POSTA :
idazleeskola@idazten.com
arse@asmoz.org

Antolatzailerak:



Elkarlanean:



Babesleak:





LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUTAN:

BILBO: Elkar-Iparragirre Megadenda.
La Casa del Libro. **DONOSTIA:** Bilintx. **ARE-
TXABALETA:** Leniz liburudenda. Kioskoa.
BERGARA: Etxeapare. **IRUN:** Bilintx. **URNIETA:**
Sarobe Arte Eszenikoaren Gunea. Lekaio Kul-
tur Etxeko liburutegia. **ZARAUTZ:** Garaio li-
burudenda eta Indize liburudenda.
GASTEIZ: La Casa el Libro. Elkar Megadenda.
IRUÑEA: Xalbador. Lanbroa taberna.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

IDAZLE ESKOLA

ZUZENDARIA: Tere Irastortza

IDAZKUNTZA KONTSEILUA:

1. eta 2. mailako ikasleak

ARGAZKIAK ETA IRUDIAK:

Gorka Azkarate,
Izaskun Etxeberria
eta Irati Garmendia

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
argi@guaixe.net

INPRIMAKETA:
GERTU Inprimategia

L.G. SS-803/04

IRITZI ETA GOGOETA

Arrazakeriaren azken apurrak - Lide Iparragirre	4
Hitzak eta ezereza - Amaia Portugal Gonzalez	5
John Reed - Jose Luis Larrañaga	6-7
Kolore-paleta - Miren Ione Solabarrieta Badiola	8
Simaur-lurrina - Irene Gil Legarra	9
Liburuak sutan - Lide Iparragirre	10

NARRAZIOAK

Hitz gose - Asier Mendoza	11
Elisa- Izaskun Etxeberria Zufiaurre	12
Izebaren arin-arina - Izaskun Etxebeste	13
Harrien eraztunak - Maitane Legarreta Etxezarreta	14
Eliza sutan - Urtzi Leonet Santa Cruz	15
Marcel-en liburua - Ekhiñe Egiguren Azkune	16
Dosi txikitan ez da txarra - Odei Arregi	17

SOLAS ETA JOLAS

Arroz-esnea - Irene Gil Legarra	18
Korapiloak - Irene Gil Legarra	18
Lanparako jenioa - Lide Iparragirre	19
Komikia - Isabel Martin	19
Nire bihotza - Urtzi Leonet Santa Cruz	20
Orain bai - Jone Gorostarzu eta Izaskun Etxebeste	21

ELKARREKIN HIZKETAN

Indigestioa - Xabier López Askasibar	22-23
Hizketan mutu - Izaskun Etxeberria Zufiaurre	24
Zu berri bat - Ione Gorostarzu	25
Itsasoa metroan - Iñaki Odriozola	26-27

KARMELE IGARTUA BENGOA GOGOAN

Aretxabaletako Enara - Leire Zubeldia	29
Denpora ezin da atrapau- Itziar Gomez	30-34
Elementuotan - Tere Irastortza	35-36
Usaina - Alaitz Vives	37
Itsasoa - Iñaki Zubeldia	37
Ispilua - Izen Yoseba	37
Ur jainkoa - Auxtin Zamora	37
Sua izan zaitezen - Juankar Mugartza	38
Kurtzebarri eskolakoak - Rosa Urreta	38
Enarari ene agurra - Fito Rodriguez	39
Eguzkiak - Ainara Maia	39
Garaiz izateko, Sentitzen dut - Itziar Gomez	40
Elurra udaberriari ate joka - Ainara Maia Urroz	40
Poesia itsasoratzen- Eneko Aranburu	41
Karmele oroitzuz - Carmen Valois	41

POESIA

Ez Nauzu ezagutzen, Nire baitako biztanlea - Haizea Caminos ..	42
Galdera ikurra - Leire Zubeldia	43
Amodioak eta ezak - Ainara Maia	43
Poema - Ione Gorostarzu	44
Bizitza - Maddi San Miguel Alkorta	44
Galderak, Pla dels Angels - Ciutat Vella - Ekhiñe Egiguren	45
Ukituta, Gela ilun hauetan, Abiatu, Ob-sesioak - M. Agirregom. .	47

IRAKURKETAK

Gasolindegian - Mikel Agirregomezkorta	49
Hatsaren kulunka - Izaskun Etxeberria	50
Giza izaeraren zentzugabekeria - Xabi López Askasibar	51

GURE ARRASTOA 52-55

NOR DA NOR 56-58



«Txoriak baino altuagoa hegan egiten ikasi dugu, arrainak baino sakonago igeri egiten ikasi dugu baina ezin izan dugu anai-arrebak bezala bizitzen ikasi». MARTIN LUTHER KING, JR.

arrazakeriaren azken apurrak

Historiako garai oro arrazakeriak eta intolerantziak markatu dute. XXI. mendean gauzak aldatu direla aldarrikatzen den arren, egunerokotasunean geure arbasoak bezain itxiak garela badirudi. Hori frogatzeko, niri gertatutako pasarte bat deskribatuko dizuet.

2009ko ekaina zen eta krisia gailur-gailurrean zegoen. Goizeko bederatziak eta INEMeko ofizina beti bezala jendez gainezka. Gehiegi argitutako gela haren eskuinaldean, errenkada amaiezin bat begiztatu nuen, ziurrenik lan bila zetozen pertsonen ilararena. Bi aldiz pentsatu barik errenkadaren atzekaldean ipini eta aurrean nituen pertsonak lehiakide bat banintz bezala begiratu ninduten. Gorrotoa eta amorrua nabaritu nuen begirada horietan. Urduri egongo dira, pentsatu nuen, ez diot garrantziarik emango. Aurreko bi postuetan hogeitamarren bat urte izango zuten bi gazte nituen. Gizonezkoak, sasoi onekoak, laburbilduz, lanpostu bat azkar lortzen duten horietakoak. Hala ere, nabarmenki desberdinak ziren arrazoi bategatik: kolorearengatik. Pertsona beltzarenaren txanda iristean, lehiatilara urreratzeko keinua egin zionean, atzean zuen gizona aurreratu zitzaion. Gizon beltzarenak, abailduta, burua makurtu eta ez zuen hitzik esan, ukabilak amorruz estutu besterik ez zuen egin. Harrigarria zen inork ezer esateko adorerik bildu ez izana hain agerikoa zen bidegabekeria baten aurrean.

Arrazakeriaren historia mundua sortu zenean hasi zen eta ez du laster amaituko den itxuririk. Atzera egiten badugu, historian zehar izandako guda gehie-

nak arrazakeria kontuek sortuta izan direla ikusi ahaliko dugu eta AEBko gerra zibilean, Bigarren Mundu Gerran edota Hegoafrikako *apartheid* erregimen sozio-politikoan zehar jasandako arrazakeri neurrigabea ezin da tipex-arekin ezabatu.

Asko dira egoera aldatzen saiatu direnak, Nelson Mandela, Martin Luther King, Gandhi, Rosa Parks... Isuritako odolak edota galdutako malkoek ez ote dute ezertarako balio izan? Ezingo dugu inoiz elkarrekin bakean bizi?

Lide Iparragirre

hitzak eta ezereza

Krisian gaude.

Gosaritan konturatu naiz, egunkaria irakurtzen ari nintzela.

Krisian gaude, indizeren batek gora egin duelako eta agintarien jokaera arduragabeak bultzatuta ekonomiaren egoera negargarria delako. Eta mundu hau globala denez Europak gailurra egin du, eta erabaki dute neurri zorrotzak hartu behar direla eta hiritarrek gerrikoa estutu behar dutela eta erreformak egin behar direla, eta aurrekontuak murriztu eta pentsioak egokitu. Eskerrak Alemania maisuki ari den zuloatik ateratzen. Angela Merkelek lezioa eman digu.

Bide batez... Indize hori, zer da?

Krisian dago nazioartea ere. Herrialde arabiarrek "aski da" esan dute eta kalera irten dira. Erreboltak hasi dira eta adierazpen askatasuna eta ongizate estatua aldarrikatu dute. Heroiak dira eta haien jokabidea eredugarria da, eta iritzi publikoak zinez espero du faxismoa garaituko dutela eta, nola ez, dagozkien eskubide guztiak berreskuratuko dituztela. Informazioaren eta komunikazioaren gizartearen garai-pena litzateke, zalantzarik gabe.

Bide batez... Herrialde arabiarrek, zeintzuk dira? Zergatik esan dute "aski da"?

Kirolean, futbolearen ere, izaten dira egoera kritikoak. Halakoxeak dira partidak. Hil ala bizikoak. Porrota ala nagusitasuna. Ito ala arnasa hartu. Batzuetan sekulako jipoia jasotzen dugu eta besteetan egundoko astindua eman. Eta talde batzuk, taldea baino gehiago dira, bizitzeko filosofia. Eta haien zelaian giro paregabea izaten da beti eta etxeko taldea hegan eramaten dute garaipena erdiestera.

Bide batez... Ez baitzait garbi geratu... Futbola, zertan datza?

Krisi energetikoa ezin ahaztu. Klima aldaketak Kyotoko protokoloa betetzera behartzen gaitu, eta teknologia berriak garatu behar ditugu eta horrela energia alternatiboak ekoitzi. Horretarako talentua metatu behar dugu, ezagutza, ikerketa, garapena, berrikuntza. Eta gauza guztien gainetik, jasagarriak izan. (Edo iraunkorrak).

Bide batez... Inork ba al daki Kyotoko protokoloak zer dioen?

Zer esanik ez, gurean bizi dugun une kritikoaz. Egoera politiko historikoan murgilduta gaude, eta hura kudeatzeko ezinbestekoa da bide orria zehaztea. Eus-



kal gizarteak hala eskatuta, ezker abertzale erradikal eta autoizendatuak ETA errefusatu du, eta deialdia egin dio herriari atxikimendua eskain diezaion. Ptxi Lopezen gobernu transbertsalak esan du ez dela nahikoa, eta batzuk gaitzetsi eta besteak zoriondu behar dituztela. Horrela bakarrik lortuko dugu euskal kultura munduan zabaltzea eta euskara despolitizatzea.

Bide batez... Nola bihurtzen da egoera bat historiko? Nola, politiko?

Krisian gaudela konturatu naiz egunkaria irakurtzen ari nintzela. Baina ez naiz ekonomiaz, ez nazioartez, ez futbolaz, ez energiaren, ez eta Euskal Herriaz ari. Hitzek krisiari erreparatu diot nik. Ernegatzeraino errepikatu ditugulako izana galdu duten izenek kezkatzen naute.

Topagune bat antolatzea otu zait, hitzei zor diegun ondarea goraiatzeko. Edo behatoki bat zabaltzea, eleen aniztasuna bermatzeko. Edo mahai-inguru baterako deia egitea, lexiko askatasunaren beharrez eztabaidatzeko. Edo agerraldi politiko bat. Edo ekitaldi historiko bat. Edo hil ala biziko gailur bat...

Hitzen nahas-mahas horren erdian, galdu egin naiz azkenean, eta gosaltzen jarraitu dut. Azukrea bota dut katiluan, eta kafe beltzean funtsa galtzen ikusi dut.

Amaia Portugal Gonzalez

JOHN REED: Pancho Villaren eta Leninen kronista



Iraultzaile konprometitua batzuentzat, ezkertiar burges eta *playboy* erromantikoa besteentzat, eta bolxevikeei saldutako traidorea beste hainbatentzat. Hala ere, inork ezin du zalantzan jarri John Reed (Jack lagunentzat) historiako kazetari, erreportari eta kronista interesgarrienen artean kokatzen dela, bai bere lanagatik bai bizitzan erakutsitako konpromisoagatik.

Portland hirian, Oregon estatuan, jaio zen, 1887. urtean, eta hogeita hamahiru urte geroago hil zen Moskun, Errusia berriaren bihotzean.

Familia aberats baten erosotasunean igaro zuen haurtzaroa, eta horri esker *Harvard College*-n ikasi ahal izan zuen. Han ezagututako lagunek eta garai hartan zeuden gizarte-desberdintasun ikarragarriek ideia ezkertiarak bereganatzera bultzatu zuten.

Olerkaria izan zen bizitza osoan, baina «*Masses*» aldizkariako zuzendari Max Eastman-ek esan zuenez, «Reed-en poesia, hitzak idazteko ez ezik, bizitza bizitzeko ere bazen». Beraz, haren poemak ez ziren bikainak izan, baina zuzenean jo zuen gerren eta iraultzen, greben eta manifestazioen bihotzera, eta hori guztia kamera baten begi zorrotzarekin egin zuen, kamerak asmatu baino lehen, eta magnetofoiaren memoriarekin, oraindik horrelakorik ez zegoenean. Historiari bizia eman zion aldizkari merkeetako irakurle xumeentzat eta hileroko kazeta gorrien kontsumitzaile ezkertiarrentzat.

Garai hartan, Pancho Villa nekazari-matxinada baten buru zen Mexikon, eta *Metropolitan* agerkariak berriemaile gisa joateko eskatu zion Reed-i. Laster ikusiko zuen bere burua Mexikoko iraultzan murgilduta, Villaren beraren alboan zaldi gainean. Handik bidalitako artikuluei buruz honako laudorioak idatzi zituen Walter Lippmann idazle eta intelektual ospetsuak: «Inoiz egin den kazetaritzarik onena... Haren inpresioen aniztasunak, baliabideek, haren hizkuntzaren koloreek agortezinak ziruditen... eta Villaren iraultza, zeina ordura arte prentsan modu gogaikarrian islatu baitzen, nekazari-mugimendu geldiezina bihurtu zen, lurraren eta zeruaren arteko panorama miresgarrian».

Horren guztiaren emaitza da *Insurgent Mexico* (Me-

xiko Matxinatua), gai horri buruz John Reed-ek idatzitako artikuluekin 1914. urtean argitaratutako liburua. Ortodoxiaren ikuspuntutik, ezin liteke kazetaritza objektibotzat jo; aitzitik, iraultzaren aldeko ikuspuntutik idatzita dago.

Bere kontakizunetan Mexikon zuzen-zuzenean izandako bizipenak jasotzen ditu kazetariak, deskribatzen duen errealitatean guztiz murgilduz. Hango matxinatuekin dabil, haien poz, neke, arrisku eta beldur berberak bizitzen ditu, eta ez du ezkututzen haiekin sentitzen duen identifikazioa; izen eta abizenekin aurkezten dizkigu, eta bakoitzaren fisikoaren, nortasunaren eta istorioaren berri ematen digu. Horrela, historia nagusiaren barruan istorio txiki asko daude, errealitatea ez balitz, abenturazko nobela ere izan litekeen narrazioa osatuz.

Garai hartako Mexikoz ematen digun irudiak kontraesan asko ditu: distiratsua eta miserablea; kementsua eta koldarra; idealista eta ezjakina. Jasotzen dituen egoera eta elkarrizketa asko Latinoamerikan sustrai sakonak dituen surrealismoaren eta errealismo magikoaren barruan kokatzeko modukoak dira. Horiek irakurrita, ez gaitu harrituko Luis Buñuel zinezuzendariaren Mexikoko filmak eta Gabriel Garcia Márquezen eleberririk lurralde haietan inspiratu izanak.

Urte batzuk geroago gerra piztu zen European, eta New Yorkeko hedabide handien eskaintzak jaso ondoren, *Metropolitan*-entzat lan egitea onartu zuen berriro. Ordurako, bere konpromiso politikoa gero eta ageriago zegoen, batez ere gerraren aurka adierazitako iritziengatik, eta horrek zenbaiten kritikak erakarri zizkion. Adibidez, urte batzuk lehenago hainbeste laudatu zuen Lippmann-ek honela definitu zuen: «Izakeraz, ez da idazle profesionala, ezta kazetaria ere, ondo pasatzen duen pertsona baizik»; «Reed ez da objektiboa, eta harro dago horretaz».

Errusiatik zetozen berriek sekulako zalaparta sortu zuten 1917. urtean. Tsarra, erregimen zaharra, boteretik kendu zuten. Iraultza abian zen. Herri oso batek uko egin zion gerraren sarraskian parte hartzeari.

Berehala abiatu zen Petrogradora. Han, iraultza borbor egiten ari zen bere inguruan, eta bera guztiz bar-




neratu zen giro sutsu hartan: manifestazioak, mitinak, lantegien okupazioak, gerraren aurka altxatzen ziren sodaduak, Petrogradoko Sovieteko barne-eztabaidak...

Eskenatoki guztietan ibili zen Reed, batetik bestera mugituz, atsedetik gabe, oharrak abiada izugarrian hartuz, panfleto, kartel eta proklamazioen bilduma eginez, inoiz gertakari historiko batez eman ahal izan den lekukotzarik fidelena osatzeko material nahikoa zeukala iritzi zion arte.

Estatu Batuetara itzuli eta, ohar horiek baliatuz, bi hilabete eta erdi gau eta egun idazten pasa eta gero, *Ten Days That Shook the World* (Mundua Astindu Zuten Hamar Egunak) argitaratu zuen 1919. urtean. Liburu hori boltxevikeen Iraultzaren lekuko baten narrazio klasiko bihurtu da, eta bere orrialdeetan mundu berri baten jaiotzaren soinuak pilatzen dira.

Alde batetik, iraultzaz jabetu nahi ez zuen Errusia islatu zuen: «Garai horietan gertatu ohi den bezala, eguneroko bizitza txikiak jarraitzen zuen, iraultzari entzungor eginez. Olerkariak olerkiak egiten zituzten, baina ez iraultzarik. (...) Probintzietako damatxoek jarraitzen zuten hiriburura iristen, frantsesa ikasi eta ahotsa heztera. (...) Funtzionarioen emazteak tea hartzeko biltzen ziren arratsaldeetan, bakoitzak bere man-

gitoan ogi biribil erdia eta brillantez apaindutako urrezko edo zilarrezko kutxatxoetan azukrea zeramata. Andre horiek Tsarraren itzulera irrikatzen zuten, edo alemaniarren etorrera, edo, finean, etxeko zerbitzarien krisia konponduko ziekeen edozer. Egun batean, lagun baten alabak histeria atakea izan zuen, tranbiako kobratzaileak «burkide» (tovarix) deitu ziolako».

Beste aldetik, Errusia berriaren jaiotza deskribatu zuen: «Nevski etorbidean, ilunabar hezearen pean, jendetza elkarri bultzaka zebilen azken egunkariak eskuratu nahian, edo gune libre bakoitzean itsatsitako deialdi eta aldarrikapenak irakurtzeko ahaleginean. Petrogradoko Sovieta bilkura iraunkorrean zegoen Smolnyn, ekaitzaren erdigunean. Ordezkariek loguraren loguraz erortzen ziren lurrera; gero, altxatu eta eztabaidetan parte hartzen jarraitzen zuten. Trotskik, Kamenevek, Voldarskik egunean sei, zortzi, hamabi ordu igarotzen zituzten hizketan...».

Reedek idazkera bizi-bizian ematen digu gertakari haien guztien berri, eta gatazkaren muinera eramaten du irakurlea. Mexikokoa ez bezalako irudia ematen digu. Errusian Lenin gidatzen ari zen mugimenduan dena zen serioagoa, antolatuagoa, logikoagoa, nahiz eta han ere kontraste izugarria bizitzen ari zen: erregimen zaharraren eta iraultza gorriaren arteko gatazka; izan ere, ez zegoen erdibiderik, burgesia aherlegia baitzen bere aukera, demokrazia kapitalista, aurrrera eramateko.

Jaioterrian gauzak gero eta zailago jartzen ari zirela ikusirik, Errusiara itzultzea deliberatu zuen Reed-ek. Bidean preso hartu zuten antikomunistek, eta torturak eta espetxea nozitu zituen. Horrek bere osasun egoera ahuldu zuen, eta geroago, Moskun, haren gorputzak ezin izan zion aurre egin gerraren eta miseriaren ondorioz hedatutako tifus gaitzari. Haren bizitza gorabeheratsua amaitu zenean, tristatutakoak

bezainbeste izan ziren lasaitu ederra hartutakoak haren aberrian.

Ezin dugu jakin ze gizon mota izango zen hogeit hamar berrogei urte gehiago bizi izan balitz. Agian, Jack-ek, 26 urterekin bere garaiko kazetaririk hoberena askorentzat, eta 32 urterekin idazle eta ekintzaile politiko bikaina beste hainbatentzat, mito bilakatuko zuen azken balentria gauzatu zuen: gazte hiltzea. Haren gorpua Krenlimean datza, iraultzako beste heroien ondoan, eta ohore hori izan duen estatu batuar bakarra da.

Jose Luis Larrañaga



Liburuak

John Reed-en lanak ez dira euskaratu, baina gaztelaniaz aurkitu daitezke:

- *México Insurgente: La Revolución De 1910* (2005. Txalaparta Argitaletxea. Tafalla).
- *Diez días que estremecieron al mundo.* (2007. Txalaparta Argitaletxea. Tafalla).

Filmeak

John Reeden bizitza zineman ere islatu zen, bi filmetan: *Reds* (Gorriak) Warren Beatty-rena, eta *Krasniye Kolokolá* (Kanpaia Gorriak) Sergei Bondarxuk soviatarrena.



kolore-paleta

Pasa den azaroaren 13an Bergarako Idazle Eskolan Karmele Igartua idazle eta eskola-kideari omenalditxo eskaini genion. Polita izan zen ekitaldia, hunkigarria, eta luze xamarra atera bazen ere, uste dut antolatzen hainbeste lan egin zutenek, pozik egoteko motiboak dituztela, une askotan giro goxo eta zirrargarria sortzea lortu baitzuten.

Nik Karmele iaz ezagutu nuen Idazle Eskolan. Ez nuen berarekin askotan egoteko aukerarik izan. Noizean behin klasera etortzen zen, eta ikasturtean zehar aurrera eraman behar genituen proiektuetaz aritzen zitzaigun: web orrirako argazkia eta profila prestatu behar genituela; Mugalarirako txandak zeintzuk izango ziren akorda eragitera ere etortzen zen aldiro, eta baita ilunabar literarioetara joateko gonbitea egitera, edota Idazle Eskolako aldizkarirako lanak prestatzen joateko aholkatzera.

Omenaldian, besteak beste, gehienbat Karmeleren beraren olerkiak irakurri genituen. Egia esateko ordura arte ez nuen Karmeleren olerkirik ezagutzen. Jakin banekien bi olerki liburu zituela idatzita, eta omenaldi-ekitaldia aitzaki hartuta, urreratu egin naiz Karmeleren olerkigintzara.

Irakurle, zerorren baimenarekin, *Hitzak orbainetan* liburutik olerki bat ekarri nahi dut hitzon tartera. *Lilia* du izenburutzat eta honela dio:

Poetak biluztu zuen
liliaren hostoek,
hego haizetan,
nora – eza gorputz;
dantzan-dantzan
lurreratu dira
lili-lur zuriak;
esku ahurrean bildu ditut berriz
bat, bi, hiru...
eta neure baitara ekarri.
Ni nintekeen lilia; zu, poeta.



Ikaragarri ederra irudituzaiteszena, gozoa, erromantikoa oso. Indarra behar da gero, gaur egungo giza-arau moderno eta post-modernoen atzaparretatik ihes egin, eta harreman digitalen garaian, idatziz, paperean, lili-usainez margotutako berba xumez, sentipen-iturri bihurtu, eta hain olerki ederra erditzeko.

Karmeleren olerkietaz hitz egiterakoan, bere sormen-gaitasunaz aritzea zilegi litzateke, edota bere olerkietatik isurtzen diren gozotasun-itoginez, edo lerro artetik darion xamurtasunaz.

Niri, ostera, bere olerkiak leitzera-koan, indarra begitantzen zait aipua merezi duen ezaugarria. Indarra da behar dena. Indarra, politikoki ez delako oso zuzena, horrela, inongo abisurik gabe, liliak biluzteaz, poeta izateaz eta dantzan aritzuz lurreratzeaz hitz egitea. Ez dago ondo ikusita nonbait, krisi ekonomikoaz beste mintzatzea: langabezia dauddenen kopuru beldurgarriek dardarka uzten gaituzten garai hone-

tan;
ERE-
ak zer ziren ez jakite-
tik, geure berba-
roan txertatzera jauzi
egin dugun egunotan; sarri-sarri senar edo bikoteak emakume bat jipoiu edo akabatzen duen egunotan, nola mintzatu ba lilies?

Komunikabideetatik etengabe jasotzen ditudan mezuek duten helburuaz, askotan aieruzkoa baino ez den ustea izaten dut. Gizaseme eta gizalabok ondo informatuta egotea izango da, seguruenik, helburuetako bat; gertakarien inguruko datu piloa ematen digute: noiz gertatu den dena delakoa, non, nortzuk parte hartu duten, zeinek zer egin edota esan duen, esandako edo egindakoak ze eragin izan duen, eta abar luzea. Horraino agirikoa.

Baina, horrela, eguna joan eta eguna etorri, gris xamarra iruditzen zait aurkeztu nahi didaten mundu-irudi hau; gris xamarra ez, oso grisa, hobeto esanda. Bestalde, ez dut lerootan nerabegaroko aldarrikapen utopiko eta tolesgabeen bozeramaile izendatuko neure burua. Mundua arrosaz margotuta ikusten duten

horietarikoa naizenik ere ez nuke inork pentsatzerik nahi. Beno, egia esan, aipatutako nerabazarotik honantzko bidean, ikasi dut nik neuk ezin dezakedala aldatu besteek nitaz pentsatzen dutena; beraz, hor ez naiz sartuko.

Eta, nahita ere ezin esan gabe utzi, koloreetaz ari garenean, kolorea nik neuk aukeratzea izaten dudala gustuko, eta ez beste inork. Hori horrela, grisa batzutan ondo dago: elegantea, zuhurra, neurritsua, *diskretoa*. Baina, beste batzutan gatzgabea, motela, hila, tristea. Inguruko joera griserantzkoa denean, moda hedatua bihurtu denean, edota grisaren definizioa *errealista* denean, zaila egiten da gainontzeko koloreek osatzen duten kolore-paleta erakutsi nahi izatea. Hain zaila ezen, indar handia behar dela nonbait joera guzti horiei aurre egin, eta norberak norberarenari eusteko.

Horrelakoa da Karmeleren olerkietan atzematen dudana indarra. Nonbait ontzat emanda dagoen *statu quotik* kanpo hegan egiteko ausardiak eskatzen duen indarra. Orbainak ditugula eta ez daukagula kirurgia estetikorajotzeko asmorik orbainok ezkutatzeko; orbain horiei esker ikasi beharrekoak ikasten ari garela defendatzeko; guzti horretarako behar den *indarra* da Karmeleren olerkietan sumatzen dudana.

Eta orbainak fereka ditzakegula ere badio Karmelek amaiera modura jarriko dizuedan bere olerki zatitxo honetan. Lili, poeta, hosto, gorputz, dantza, orbain, ferekatu... grisetik haratagoko *kolore-paleta* liluragarria nonbait.

Fereka daiteke orbain urdindu bat;
Eta itsaso urdin batek fereka dezake,
Eta itsaso beltzak, eta gorriak;(...)

Miren Ione
Solabarrieta Badiola



simaur- lurrina

Simaurrak ere badu bere lekua aromaterapian. Medikuntza alternatiboaren eremu batzuentzat, sineskeria besteentzat... entzunda geneukan antzinatean landare jakin batzuk sendabide bezala erabiltzen zirela; hosto, lore edo fruituei ateratako koipeak baliatzen omen ziren gorputzaren zein arimaren harmonia lortzeko: izpilikua erlaxatzeko, albahaka apaluneei aurre egiteko, jengibre estimulatzen... Hori guztia bagenekien, baina simaurrarena sekulako aurkikuntza izan da, guretzat behintzat, ustekabekoa bezain berritzailea. Eta dena telebistari esker. Askotan gutxietsi edo juzku txarra egiten dugun arren, aitortu beharra dago noiz edo noiz telebistak badakartzala bere onurak.

Telebista piztuta zegoen lehengo afalostean. Abentura-lehiaketa baten txanda zen larunbat hartako iluntzean, abentura-lehiaketa baten parodia, zehatz esanda. Partehartzaileak: bi talde, launa gaztez osatuta. Erronka: nor lehena simaur pila batean ezkutatuta zeuden hogeita bi giltza aurkitzen. Han hasi ziren zortzi lehiakideak, deabruari beheratuta bezala, gorotzak eta lasto ustelak oratzen, besaurreak simaur mordoiloan murgilduta eta burua lohi kiratsuzak zipriztinduta.

Ezaguna da simaurra marruskatzean zer gertatzen den... eta hori gertatu zen ukuilu hartan ere. Usain sarkor eta nazkagarri hura harrotu eta hedatu egin zen. Kamera eta kamera-mana horditu zituen amarruti, zuntz optikoa limurtu etorri xaramelatzailearekin eta, gutxienik ustean, telebista bere egin zuen sutsu, pantailaren pixelak simaur-lurrina izerditzten hasteraino. Guk orduan, izu laborriak hartuta, ahalik eta arinen sofatik jauzi egin, telebista itzali, zer gerta ere, eta ohera joan ginen. Orduz geroztik dakigu simaurrak, kanelak edo larrosak bezala, propietate afrodisiakoak dauzkala.

Eta orain, gau hartakoa errepikatzen dugu telebistari simaur-usaina darion bakoitzean.

Irene Gil Legarra

liburuak sutan

Ez al dute, mendez mende, erlijio edo politika mota askok adierazpen-askatasuna edota prentsa-askatasuna ukatu, isilarazi eta zigortu? Historian zehar, izurriteak bezala errepikatutako ekintza anker, metodiko eta zital hau, herrialde inbaditzaile eta diktatorialeri egotzi diezaiekegu. Biblioclasta-k, hau da, liburuak erretzen dituen pertsonak, historia, iragana edota pentsaera suntsitzearekin batera, herrialde baten nortasuna ezabatzen du. Heinrich Heine idazleak, 1821. urtean adierazi zuen moduan: “Liburuak erretzea, izaki bizidunak ere erre egingo dituzten seinale da”.

Dokumentatutako lehen liburu-erreketa K.a. 212 urtean Qin Shi Huang Txinako lehen enperadoreak bulztatuta burutu zen. Agindua bete ez zuten jakintsuak bizirik ehortzi zituzten.

XV. mendearen amaieraldean, “Handikerien sua” deituriko liburu eta arte-lan erreketak ezaguna gertatu zen Florentzian, inmoralak zirela arrazoituz.

Txilen, 1973ko irailaren 11n jazotako Estatu Kolpearen ondoren, militarrek politika liburu ugari konfiskatu eta erre zituzten, Augusto Pinochet aginduak jarraituz.

1976ko apirilean, Luciano Benjamin Menendez-ek, Argentinako Estatu Kolpean parte hartu zuen agintarie-tako batek, besteak beste, Proust, Garcia Marquez, Neruda eta Saint-Exupery-ren liburu-erreketa burutu zuen. “Ez dut bakar bat ere osorik utzi nahi, gure seme-ala-bei iruzur egiten jarraitu ez dezaten” aipatu zuen.

Hala ere, liburu-erreketarik ezagunena 1933ko maiatzaren 10ean Berlineko Bebelplatz-en gertatutakoa da. Oro har, idazle juduak idatzitako edo ideologia iraultzailetzat jotako liburuak erre ziren, Karl Marx, Sigmund Freud, H.G.Wells-en liburuak, esaterako. Gau hartan 20.000 inguru liburu nazismoaren gar ikaragarrietara bota zirela kalkulatu da.

Zenbat liburu zoragarri, zenbat gogoeta bikain galdu diren, mundua hobetzeko dela adieraziz “profeta” ero batek emandako aginduengatik. Iraganeko gauza dirudien arren eta gaur egun horrelako erokeria bat egingo ez gurekela pentsatu arren, badaude oraindik ere askatasunez idazteko edo hitz egiteko mugak ezartzen dituzten herrialdeak, Txina, Kuba edo Iran, adibidez. Urrun dirudi liburu-erreketa bat gertatzeko posibilitateak baina badaezpada ere, ezkutatu ditzatela etxean dituzten liburu preziatuenak, ero batek erre nahi izan baino lehen.

Lide Iparragirre



hitz gose

Kanpandorreko hotsa bazkari legerako ordua iragartzeko zorian dago. Hemen jarraitzen dut, goseak eta desioak amorratuta, sabeleko arantzen atezua nork samurtuko zain. Eguneroko lapurrak ostu dizkit erraiak ase arazten dizkidan hizki goxoak: garai batekoak baino eskasagoak eta hotzagoak diren arren, tripa beteta izaten laguntzen didaten hizki lasaigarriak. Non gelditu dira egunero ehunka ekartzen zizkidaten testuak? Amoranteen arteko ezinegona lau haizetara barreiatzen zuten hitz mardulak? Barnetegiko semeak amari bidaltzen zizkion berri mozorroak? Ohartu naizenerako aspaldiko etorkizunaren haizeak hemendik urrun ufatu ditu guztiak. Eta niretzat lau testu ziztrin besterik ez dira gelditu: gehienak pasio eta mamirik gabekoak, baina gutxienez, barruko zulo amaigabea betetzeko balia ditzakedanak.

Eta, hementxe, nire bakardadean, hitzok burmuina elikatzeko aukera eskasa eskaintzen didatenez, kanpokoari erreparatzea besterik ez zait gelditzen.

Bizpahiru haur dauzkat inguruan jolasean. Ni hemen egotearen arriskua sumatzeko gai ez dira, aingerutxoak. Batek ile kizkurra dauka. Gaixoak jakingo balu zenbateraino desiratzen dudan iletxo horien fereka, ez dut uste horren pozik ekingo liokeenik lagunarteko jolas xaloari. Ai, ene. Inor ohartu gabe, kanpai hotsaren babesean, haurra jango nuke, haren arima betiko itzali eta bere pentsamendu guztiekin tripa festa ikaragarria ospatu. "Umetokia" hitzari beste definizio berri bat emango nioke: maltzurragoa, apatatsuagoa; nirea. Ondoren, haurraren garuneko hitz guztiak zurrupatu ondoren, haietaz gozatuko nuke etengabeko esangura eta lexikoz mozkortuta, amaiezinezko orgasmo batera heldu arte. Ondoren, oharkabean, hezurak txistukatu egingo nituzke, asebeteta, inongo mesprezurik gabe. Pipa jaleak azalak botatzen dituen bezala. Lasaitasunez. Herioari agur esanez.

Ingurua, plaza, itzalez beteta dago. Kanpai hotsek utzitako oihartzunarekin batera makina bat marmar eta ahots entzuten ditut: gizon-emakume arteko elkarrizketa amaigabeak, lagunarteko esamesak, guztiek komunikatzeko duten beharraren oinordeko. Baina zarata da niretzat, ezin baitut ulertu haien jarioak zer dioen. Horrek gogorarazten dit zenbateraino nagoen isolatuta, kaleko eserleku txatxu honen alboan, nire barruko kobazuloa hutsik, hitzen eta eskutitzen gose. Ahoa beti irekita izan arren, sabela hutsik izatera ohituta nago. Ez etsita, ordea, nire gaua iritsiko baita.



Presarik ez daukat. Gauren batean, noraezean dagoen haur bat hurbilduko zait, ilunabarrean, itzalen babesean, eskutitz bat aho barruan sartzeko asmoz.

Horixe izango da bere azken eskutitza...
... eta nire aukera.

Asier Mendoza

Elisa

Iluntzen ari du. Bordako ateko zirrikitutik azkeneko argi printzak sartzen dira garo gainean pausatuz. Freskatu du eta sekula bere izena aditu ez duen Elisak, bere bi hanka motzez eta hiru besok besarkatzen dute bere gorputz gizena. Ez daki zer ordu den, baina bai daki azkeneko argi printzak ura daukan ontzira ailegatu orduko atea zabaldu eta janaria ekarriko diotela. Goseak dago, beti izaten da gose. Jana ekartzeko zain dago.



Duela ez daki zenbat, ailegatu da berriro argi printza ur ontzira; itzali ere egin da argitasuna; hontza ere entzun da... baina inork ez du atea zabaldu, inork ez du jatekorik utzi garai batean zuria zen ontzi handian.

Argitasun berriak esnatu du bere izena ezagutzen ez duen eta bere ama gazteak Elisa deitu nahi zion neska gaztea. Gau freskoa egin duen arren, bere ilajeak babesten duenez, epel dago garo pilan bere gorputzak egin duen zuloan. Goseak sentiarazten du deseroso, eta berriro ere hainbeste desiratutako argi seinaleak muga gainditu baitu, atea ez da zabaldu.

Hontzarekin batera kantaitan hasi da bere aitak Elisa sekula deitu ez zuen gizajo hura. Sukaldeko zortitik aditu ditu Juan Luisek edonork nahastuko lituzkeen basapiztiarenak izan litezkeen orro haiek. Ezin du eroria dagoen tokitik mugitu, ordea. Bera ere, arima errukiena bezalaxe, inor agertu zain dago, bai-

na denbora da gizasemerik hurbiltzen ez dela base-ri zahar hartara. Andrea hil zenean gutxitu ziren bisitak etxe hartan. Bakar batzuk izan ziren aita-alaba bakarrik ikusita Atabalarako xendari ekiten jarraitzen zutenak, erabat desagertu zirenak alaba Inesen gerriondoak handitzen joan ahala.

Bakardade hartan, elkarren berotasuna bilatzen zuten Juan Luisek eta Inesek, iluntze puntuan, kanpoko lanei uzten zietenean, batik bat.

Ines gaztearen gerrialdea gizendu zen bezalaxe, mäsail gorriak zurbilduz joan zitzaizkion eta bere barru hartan zer gertatzen ari zen ondo jakin gabe, ilunabar batean, ukuilutik bueltan, min handia hasi zitzaion. Izter artean errekatxo gorri epela sentitu zuen. Ez zen odola bere gorputz barreretik atera zen gauza bakarra (aspalditxo hori gertatzen ez bazitzaion ere), ordu luze mingarri batzuk pasa ondoren, animaliatxo jaioberri likatsu baten antzerakoa izterretatik behera irris-tatuz azaldu baitzen, bere esku dardartien artean hartu zuena.

Bakarrik zegoen etxean, aita bezperan haitzaren atzeko aldeko basoan utzitako ze-poak ikustera joana baitzen. Kontu handiz, ahal bezala, Inesek garbitu zuen buru txikitxo hura, bi hanka txikitxo haiek eta... hiru beso txikitxo haiek. Negarrez garbitu ere, orduan konturatzen hasia baitzen Elisa izena jarriko zion animaliatxo ez zela sekula oso normala izango eta, behin aitari aditu zion bezala, beheko erreka ondoko base-rrian jaioa zela txahal bat bost hankekin eta handik gutxira Teodorok, etxeko jaunak, akabatu behar izan zuela.

Sukaldeko txokoan aurkitu zuen Juan Luisek alaba Ines, odol putzu baten erdian etzanda, besotan zerbait gordetzen zuela.

Sukaldeko toki berean ikusten du orain bere burua Juan Luisek, bera ere, alaba bezala, isilik joango da, bakarrik. Eta ehiztariren batek ez baditu orro deseperagarri haiek aditzen, arima errukiena ere halaxe joango da, bakarrik.

Izaskun Etxeberria Zufiaurre

izebaren arin-arina



Zerurantz begiratzen dudan bakoitzean izeba Maddalenaz gogoratzen naiz eta beldur izaten naiz ez ote den, edozein momentutan, handik eroriko. Izeba Maddalen neguko ilunabar batean desagertu zen eta ez dugu harrezkero haren berririk izan.

Neguko ilunabar hotza. Sukaldeko leihotik, goitik behera zetorren elurrak gaueko iluntasuna hausten ikusten zen. Ekonomikaren beroan, familia osoa Segura Irratiko arrosarioa errezatzen. Barruko beroak eta arrosarioaren doinu monotonoak loari deika ari ziren. Bat-batean izeba Maddalenek, ikaragarritzko oihua bota zuen. Garrasi hark itzelezko sustoa eman zigun eta bihotza pil-pilean utzi gintuen. Izebari begiratu genion denak eta haren aurpegian atsekabea besterik ez genuen ikusi. Ordurako gaitzak harrapatua zegoen, nonbait, eta errealtatetik eromeneraino doan bidea isilean zeharkatzen zuen. Gu ez ginen bere bidaiaz jabetu. Azken agurraren beldurrez edo, gaisoak, adiorik esan gabe alde egin zuen.

Garai hartan nik bederatzi urte besterik ez nuen baina, azken aldia, izebaren aldaketa fisikoaz konturatu nengo. Baziren, gutxienez, hiru hilabete loditzen hasi zenetik eta jadanik, gizaki baino, globo erraldoia zirudien. Niri izebarekin jolastea izugarri

gustatzen zitzaidan eta denboraldi hartan, gauero lo hartu aurretik, haren eskutik helduta, alde batetik bestera hegan nindoala imajinatzea ikaragarri gustatzen zitzaidan.

Izeba Maddalenek bigarren aldiz errezoak hautsi eta irratitari begira "LAGUNDU IEZADAZUE ARREN" etsi etsian oihukatu zuen. Irratitari begiratzen zion moduagatik, bere salbazioa handik jasotzea espero zuela esango nuke nik. Haren begietan egonezina sumatu nuen.

Handik gutxira, arrosarioa bukatu zen eta irratitik trikitixa zaratatsu eta alai baten doinuak atera ziren. Izebaren aurpegian inpotentzia agertu zen eta negarrez hasi zen. Hainbestekoa zen ateratzen zitzaion negar jasa, non bere malkotan itotzeko zorian geundela pentsatu nuen. Baina isildu egin zen.

Izeba aulkitik altxa zen eta arin arinaren erritmoaz leihoa ireki eta handik atera zen. Iluna eta elurra zeharkatuz hegan alde egin zuen zerurantz, irratitik "hor konpon eta adio" entzuten genuen bitartean.

Izaskun Etxebeste



harrien eraztunak

Zubi gainean eserita egoten nintzen euren zain. Zerain aldera begira dagoen atari inguruan itzal bat ikusi orduko korrika hasten nintzen, ezkutaleku on baten bila. Gehienetan, ordea, gordelekutik atera behar izaten nuen ordu laurdenez ezkutatuta egonda gero inor ez zettorrela ikusita, edo muturren aurretik igarotzen zena beste norbait zela konturatutakoan.


Bi itzal ikusteko gai nintzenez, bata altua eta luzea eta bestea baxuagoa, bihotz taupadek nire hankek baino erritmo biziagoa izaten zuten, eta ozta-ozta iristen nintzen harrizko harresitxoraino. Mikelen aitak zubia pasa eta oinez jarraitzen zuen baserriraino, baina Mikelek denbora pixka batez bertan egoten uzteko erregutzen zion eta zubi gainean esertzen zen urari begira. Aitak kontuz ibiltzeko esaten zion beti, egunen batean zoritxarrekoen bat gertatuko ote zen beldurrez. Halere, aita aurrean ez zegoenean erreka ertzera jeisten zen eta harriak botatzen zituen uretara, gustuko baitzuen urak ateratzen zuen hotsa, eta baita harriak ura kolpatzean sortzen zituen ur-uhinak ere. Uhin haiei begira egoten nintzen ni ere, eta zuhaitz enborek barrualdean izaten dituzten eraztunak gogorara-razten zizkidaten, zuhaitzen adina zehazten dutenak. Harriek ere euren adina adierazten zutelaren pentsatzen nuen ura jotzerakoan agertzen ziren uhin kopuruaren bidez.

Denbora pixka bat harri jaurtiketan pasa eta gero lore bila ibiltzen zen. Lore batzuk bildutakoan korrika ihes egiten zuen baserri aldera. Urrutiratzen ikusten nuenan irteten nintzen nire ezkutalekutik eta osabaren baserrira

itzultzen nintzen. Isilpean ibiltzen nintzen beti, ez bainuen Mikelek ikusterik nahi. Egun batez, alabaina, estropuzu egin nuen korrika nindoala eta min hartu nuen; zubi ondoko zelaian etzanda aurkitu ninduten, intzirik. Mikelen aitak besotan hartu ninduen eta herriko medikuarengana eramane. Txorkatila bihurritu nuen eta denbora batez makuluekin ibili behar izan nuen.

Handik aurrera ere, larunbatero agertzen nintzen, baina makulu eta guzti, eta, ordurarte ez bezala, korrika egiteari utzi nion aldapa gainean bi itzal ikusi bezain laster. Mikel nirekin geratzen zen zubi inguruan eta harriak botatzen genituen uretara. Larunbat haietako batean erreka ez zeraman ur askorik, udako eguraldi ona zela-eta, eta harriei begira geratu ginen, haie-takoren bat guk botatakoa izango ote zen jakin nahian. Erreka erdira hurbildu zen Mikel eta aurkitu zuen harri-rik pisutsuena eta politena hartu zuen. Harri txiki zorrotz bati heldu eta bion izenak idatzi zituen harri erraldoi hartan. Ondoren, erreka erdialdean jarri zuen berriro, lurrari ahalik eta ondoen lotuta. “Errekako ura etengabe mugimenduan dabil eta berarekin eramaten ditu pisu gutxiko harriak eta adarrak. Datorren udan, uraren maila baxu dagoenean, gure harriak hor jarraitzen duen begiratuko dugu”. Hunkitu egin ninduen bere jokaerak eta inguruan zegoen lore-rik politena eman nion trukean.

Ez nuen harriak hurrengo udan bertan jarraitzen ote zuen jakiterik izan. Osabak baserria saldu zuen urte hartan eta ez nintzen gehiago bertara itzuli. Orain begi aurrean daukat zubia eta hogeitaz gogoratutako unek bizirik dirautela iruditzen zait. Zubi gainean eseri eta urari begiratu diot, emeki-emeki aurrera doan ur emariari. Behera jeitsi eta uretan sartu ditut hankak guk



utzitako harria oraindik bertan dagoen jakin nahian. Harri handi batean izen batzuk ikusi ditut idatzita eta segituan heldu diot. *Mikel* jartzen du alde batean eta bihotza taupaka hasi zait erritmo bizian. Nire ize-nik ez da ageri, horren orde *Eneko* jartzen du ha-riaren beste aldean.

Barre algarak entzun ditut urrutian eta aldapa gora begiratutakoan bi itzal ikusi ditut. Gizon bat eta mutiko bat datoz aldapan beheara eta iraganeko oroitzapenak sortutako izua dela medio ezkutatu egin naiz. Gizona eta mutikoa beheara jaitsi dira eta mutikoa harriak erre kara botatzen hasi da. Loreak bildu ditu mutikoak eta gizonak "Ama pozik jarriko da, Eneko" esan dio, bidean aurrera jarraitu dutenean.

Zubi gainera igo eta paperean bilduta ekarri dudana atera dut poltsatik. Eratzunaren barrualdeko le-trei begira geratu naiz: *G eta L betiko*. Hatzei begira-tu diet, azalaren kolore beltzaranari, marka zuririk ez inon. Amorruren amorruez uretara bota dut eraz-tuna baina zipriztintxo bat besterik ez da sortu, ur-uhinik ez. Eratzunak ezin eraztunik sortu, urtebete ere ez dauka eta.

Mikel eta Enekoren harria hartu eta nire gordelekuan lurperatzea pentsatu dut, urak eraman ez dezan, behingoz zerbaitek betiko iraun dezan. Zuloa egiten ari naizela larruzko zapi bat aurkitu dut, barruan zer-bait daukana. Eskuetan hartu dut zapia eta dexente-ko pisua dauka. Zabaltzerakoan aurkitu dudana le-henengo gauza nire ume garaiko lepokoa izan da, as-paldi galdu nuena. Ihartutako lorea dago azpian, on-doko zelaian daudenak bezalakoa. Harri bat ere ba-da. Begiak eta masailak igurtzi ditut harri gainean *Mikel* eta *Lierni* irakurtzerakoan. Guztia hartu eta zu-bi gainean eserita geratu naiz euren zain.

Maitane Legarreta Etxezarreta



eliza sutan

Haizearen besoetan, irrintzi urrun baten oihartzuna iritsi zait. Amorruez beterik, ekaitzaren aldarria. Baso ilunaren barnetik airean zabaltzen ari den kedarra ikusten dut. Eliza sutan, mendekuaren aldarri. Atzo ez bezala, gaur borroka egin beharko dut. Aizkora odolez zikindu. Abarkak, lokatzez.

Haritz zaharren itzalpetik at-er naiz, arranoaren ahotsa ez-painetan. Mendian beheara noa, goaz, gorrotoak itsuturik. Ehunka gezik argitu digute gaua. Zeruan margotutako suzko malkoak dirudite nire begietan. Etsaiaren herria sugarretan kiskaltzen hasi da. Zergatik oi-hu horiek? Ez al da ba su horixe bera Jainkoaren arima garbitzaile?

Egurrezko atakaren gainetik salto egin eta arerioaren parera erori naiz, estropezuka. Arkaitzen lantza luzeak oztopatu du haren ezpata bizkorren bidea. Makurtu egin naiz bere eskuineko hanka aizkorakada bizkor batekin kolpatuz. Asierrek moztu dio lepoa, irtetear zen alarua odolduaz, isilduaz. Nire pa-rean belaunikatu da, indarge, eskuak txorrota gorria geldiarazi nahian.

Aurpegia zipriztindu dit, baina errukirik ez dute to-patu begi isilek.

Aurrera egin dugu herrixkako kale estuetan zehar. Enara eta Maider gogoan. Sorginak. Gure itxaropen suaren zaindari, errauts bihurtu arte iraun zuten. Nat-urarekiko miresmena, Amalurraren sekretuen jabe-goa, bekatu. Orain, gure kemena pizturik manten-duko duten su bilakatu dira.

Su horren itzalen artean dantzan aritu naiz. Herio-ren dantza iluna. Aizkora galdu dut. Odolak estali dit gorputza. Abarkak lokatzetan hondoratu zaizkit. Banoa, haizearen besoetan. Irrintzi bat entzun dut. Heldu zait arbasoekin biltzeko unea. Askatu da nire arima.

Urtzi Leonet Santa Cruz



Marcel-en liburua



Gizonezkoak Marcel izena du.

Roberto Arlt-en ipuina berrirakurtzen aritu da orain-txe arte eta liburua itxi ostean, mahaira esertzea egin du. Koaderno urdin baten lehen orriak laztandu ditu segidan. Zuri daude, gauaren ilunarekin kontrastean, hutsik orriak. Iluna beltza eta orria zuria.

Marcel-ek buruan du idatzi nahi duen eleberriaren izenburua, baina edukia bere osoan izan arte ez da titulua orrian ezartzera ausartzen. Egia esan, urteak daramatza egitasmo berarekin. Bizitza oso bat. Hau izango da bere lehen liburua eta ez du edozein obra idatzi nahi. Editoreak harritu nahi ditu, irakurlearen arreta piztuko duten hitzak idatzi, literaturzaleek mirestuko duten autorea izan. Liburu dendetako apaletan hautsez betetako ale horiek baino zerbait gehiago kaleratzea du helburu. Beraz, ondo hausnartu beharra dauka idazten duen hitz bakoitza. Bere idazle sena zuzen bideratzea, hortxe gakoa.

Horrek geldiarazten du funtsean bere idazteko grina; orri zuriaren bertigoak. Baina ez horrek bakarrik, beste zerbait ere bada; Gisèle-ren iritzia, alegia. Emakumeak aspaldi egin zuen alde eta ez da sekula itzuliko, badaki; baina behintzat bizitzan zerbait lortzeko gauza badela erakutsi nahi dio. Gisèle-ri eta bere buruari. Ahalegina egin duela, ametsa lortzeagatik borroka egin eta hor dagoela emaitza irakurri nahi duenarentzat. Inoiz Gisèlek irakurri nahi badu ere.

Orduak luze joan dira.

Egitura buruan du Marcel-ek; tonua, narratzailea, istorioaren nondik norakoak. Amaiera bera ere bai eta azken momentuan giro baten beharra somatuko bala ere, bukaera alternatiboa zein litekeen badaki.

Alta, gaur ere orria zuri; ez du hitzik idaztea lortu. Oheratu eta gaueroko gogoeta bera etorri zaio, Cesar Aira-ren hitz haiek; *“Tal vez se trate de una resignación; resignarse a ser escritor y seguir escribiendo”*. Esanahia hausnartu du, izara artean uzurtuta, deseroso. Izuak gorputza dardarazi dion arte.

Orduan, bat-bateko amorruek hartu dio barrena. Ezusteko indarrak sutu dizkio erraiak. Ohantzea utzi eta koaderno eskuetan hartu du. Bortitz. Erabakior.

Lehen hitzekin hatzen gogortasunari kontra eginaz idazten hasi da;

“Emakumeak mediaren ezker zangoan sartu du eskuin eskua. Luze.

Kiribildua askatu egin da, galtzerdiaren leunak hartu dio azala eta hatzak muturreraino eraman dituenean ezker oina ekarri du mediaren puntu artera.”

Harrapaladan, borborka irten zaizkio hurrengo aha-paldiak, kontakizunak, kapituluak; hatzen artean lumak zauria egiteraino. Baina mina sentitu ordez, behar berezkoa nabari du, hitz emaria aske uztearen zirrara.

Marcel-ek idazten pasa du gau osoa eta egunaren lehen printzekin eman dio amaia idatziari. Izenburu ipintzera ausartu da orduan; *“Gisèle eta galtzerdiak”*.

Azkenean ulertu du. Ametsak lortzeko saiatzea besterik ez dago. Idazteko idaztea. Zertarako bizi bestela, borroka egiteko ez bada.

Ekhiñe Egiguren Azkune

dosi txikitan ez da txarra

Pantorrilak laztantzen dizkizun katu batekin hasten da dena. Konturatu gabe bakardadeak bizkar hezurretik gora igo eta belarri atzean egiten dizu habia.

Bat batean konturatzen zara, gauzak ez direla zuk nahi zenukeen bezalakoak. Zeure burua bakarrik gosalitzen sumatzen duzu etxeke sukaldean, kafe bat, tostada bat, zuku bat, bat, bat, bat...

Zenbaki honek ez zaitu bakean uzten sekula, hortz eskuila bat, etxeke zapatila pare bat...

Korrika zoaz kalera, etxeak su hartu balu bezala, ihe-sean. Ez zara ohartzen bakardadea atzetik jarraika doakizula, ez zaituela bakarrik utziko, txistoso den arren, bakardadea zurekin egonen dela beti.

Kalean gauzak ez dira xamurragoak. Ibilian zoazela eskolara doazen ama-umeak gurutzatzen dituzu, etxe bila dabiltzan bikoteak eta institututik piper egin duten nerabe koadrilak. Zuk zure bidea jarraitzen duzu, inguruari gehiegi erreparatu gabe. Barruan sentitzen duzun bihotz errea, inori komentatu ezinik.

Nostalgia, inbidia, amorrua, zeloak edo gorrotoa. Zure sentimenduak deskribatzeko hitz bat aukeratu beharko bazenu, ezingo zenuke. Edo agian bai, gorroto sutua eta zeurekoia da bereganatzen zaituena.

Oinez jarraitzen duzu, zure pentsamenduak pausuen erritmoan galtzen dira.

Eta konturatu gabe, hotzak habia egiten du zure bihotzean.

Lantokira iristean, arnas hartzen duzu, arindurik.

Ondorengo orduetan lan mekaniko eta monotonoak bereganatzen zaitu, bakardadea lokartu egiten da eta zure arazoak azaleko bihurtzen dira. Ordenagailuak zurrupatzen du dena, bai ona eta bai txarra eta arazok ez dizute minik egiten. Momentuz.



Lanetik etxerakoan ez dago gorrotatu dezakezun eskola umerik. Egunak ilundu du, eta inguratzen zaituena lausotu egiten da kotxe zarata artean. Lasaia-go zaude.

Erosketak egiteko, geldialdia egiten duzu betiko supermerkatuan. Harakinak ezagutzen zaitu eta galdetu gabe prestatzen dizu xerra bakarra.

Eta berriro sumatzen duzu bakardadearen pisua.

Odei Arregi

korapiloak



Jolas honek normalean bi pieza izaten ditu, baina badaude hiru eta gehiagokoak ere. Lotzea erraza da, nahi gabe bezala suertatzen da batzuetan; jokalarien gaitasuna aproban jartzen duena piezak askatzea da.

Mota askotakoak daude eta alde handia egon daiteke batzuetatik besteetara; lehen aritu izanak ez du, beraz, arrakasta bermatzen. Tentatzen bazaitu, ez jarri eperik zure buruari; askotan ez da lehenengo saiakeran asmatzen. Gutxi, baina askatzen ezinezkoak direnak ere badira.

Ez dute jarraibiderik ekartzen; zailtasunik baduzu, eskatu laguntza zure eskarmentuari: nola mol-datu zinen zure bizitzatik ateratzeko, horren erraz korapilatu zitzaizun zera hura?

Ba, hori... hau ere patxadaz hartu...

Irene Gil Legarra

arroz- esnea

OSAGAI NAGUSIAK: arrosa (80 g.)
esnea (1 L.)

GEHIGARRIAK: azukrea
bainila leka edo
kanela txotxa
limoi edo laranja azala

...

Bi osagai nagusiak su ez-titan, etengabeko jiran, denbora luzean. Gehigarriak aukeran, nork zer eta zenbat nahi duen; gozoa, berriz, ezinbestekoa. Gero eta beroago, gero eta nahasiago... irakin arte.

Tradizio handiko errezeta da. Oinarrizkoa dirudien arren, ez da beti ondo ateratzen; arreta eta mimo handia eskatzen ditu. Suari neurria hartzea omen da sekretua, beti ezti, lehortu ez dadin. Bi osagaiek bat egin behar dute, baina bukaeran arrozak arroz behar du, eta esneak esne. Edozein jatorduri laguntzeko ezin aproposagoa.

Irene Gil Legarra



lanparako jenioa

Gizon bat Kaliforniako hondartza eder batetan pasieran dabil eta lanpara zahar batekin egin du topo. Bi aldiz pentsatu gabe, lurretik hartu eta igurtzi egiten du. Bat-batean jeinu berde bat ateratzen da lanpararen ahotik eta hau esaten dio:

- Ondo da, ondo da, lanparatik atera nauzu. Betiko kontua. Baina hilabete honetan jada lau aldiz aterra naute eta hainbeste gurari betetzeaz nazkatuta nago. Beraz, ahaztu itzazu hiru gurariak, zuk bakar bat izango duzu eta.

Gizonak, harean eseri eta tartetxo bat pentsatzen egon ondoren, hau esan zuen:


- Beti ezagutu nahi izan dut Hawai baina hegazkinek beldur ematen didatenez, ez naiz inoiz joan... Beraz, eraiki dezakezu hemendik Hawaiera doan zubi bat, honela kotxez joan ahal izateko?

Jenioak, barre algaraka, esan zuen:

- Hori ezinezkoa da. Pentsatu zenbat gauza planeatu behar diren. Zer luzeera izango du zubiak? Zenbat diru beharko da? Zenbat altzairu? Ez, ez, beste gauza bat pentsatu behar duzu.

Orduan, keinurik egin gabe, hau esan zuen:

- Ba... Ni lau aldiz ezkondu eta dibortzioatua naiz. Nire emazte guztiek bihozgabea eta axolagabea nintzela aurpegiratu didate. Orduan, nire guraria emakumeak ulertzea izango da, zer sentitzen du-



ten, isilik daudenean zer pentsatzen duten, zergatik egiten duten negar, « ezer » esaten dutenean benetan zer gertatzen zaien jakin... Laburbil- duz, zoriontsu izan daitezen zer egin behar den jakin nahi dut.

Eta jenioak hau erantzun zion azkar :

- Lehen aipatu duzun zubia... hiru edo lau biderekin nahi duzu?

Lide Iparragirre



Isabel Martin

nire bihotza

Betidanik galdetu izan diot neure buruari gizakiok non ote daukagun gordeta bihotza. Ez bularraldeko organu taupatia, gure benetako izatea baizik.

Munduaren akabera da. Suzko infernu kiskalgarri honetan itxaropen oro galduta nago, hiltzear. Azken une hauetan, pertsona baten irudia etorri zait burura. Oso gertukoa. Eztanda eta laino beltzen artean, nire itsasargi bilakatu zara.

Iluntasunak zu nire pentsamenduan zaudela harripa nazala besterik ez dut desira. Ez daukat beldurrik. Ezagutu dut maite ditudanak zauritu eta suntsitzen ikustearen ezintasuna. Ezagutu dut bakardadea, norbaitengandik banatuta egotearen barneko min amaigabea. Ezagutu dut amorrua. Ezagutu dut tristura. Baina guztien gainetik, ezagutu dut zoriontasuna, ni laguntzera datozen adiskideen maitasun sentipena.

Zu besarkatu nahi zaitut. Musukatu. Zenbat maite zaitudan esan. Zu arnastu, izate guztia zure lurri naz bete arte. Dena zu izan arte. Errauts bihurtu arte. Baina lasai nago. Zu hondamendi honetatik urrun, libre zaude. Eta oraintxe ulertu dut nire bihotza, izatea, non dagoen: zure barnean.

Norbaitetaz akordatzen, kezkatzen garen bakoitzean, hantxe izaten da gure gogoia, eta baita bihotza ere. Huraxe da bere lekua. Gure gorputza desagertzen denean inguruarekin, osotasunarekin egiten du bat. Eta gure bihotza? Gure lagun, ahaide eta ingurukoei uzten diegu. Beraien barnean izaten gara.

Elkar ezagutu genuen egun hartan bertan sortu zen bion arteko txinparta, gure bihotzen batura. Ni hiltzen naizenean zure barnean biziko naiz. Orain dudana baino bizitza garbiagoa. Orbanik gabea. Akatsik gabea.

Eta iluna isilean iritsi denean erabateko lasaitasunean harrapatu nau. Nire buruarekin bakean. Bete-tasunean.

Ez dut urrezko bide argitsuen beharrik. Nire bihotza zugan uztea da behar dudana altxor bakarra.

Zurea nirekin daramat.

Ametsak bizi egiten ditut. Horixe da nire abilezia eta aldi berean tristezia.

Urtzi Leonet Santa Cruz



orain bai



PAUL TXIKI

EGUNERO BEZALA, PAUL BERE AMARRÓN DOA JANARI BILA. POBREAK DIRA.



BETI BEZALA JAVREGIAREN AURREKO KONTAINERRETAN GERATU DIRA. HAU BETI DAGO ZERBAIT...



HAU NI RETZAT AMA!

BEHIN AMAK ERABAKITZEN DU PAUL ETXE HARTAN UZTEA.



AGUR LASTANA, HEMEN ONDO ZAINDUKO ZAITUZTE.



ZER EGITEN DUZU HEMEN TXIKI?

BAKARRAK NAGO!



NONDIL AZALDU DA UME HAU?

EZ DAKIGU BAINA HEMEN ONDO DAGO

EZ DU EZER ESATEN.

AMORE KIN JOAN NAHI DUT

indigestioa

(Elefantea. Bihurkina. Lau haur. Amatxoen garunen isuriak espazioan sakabanatuak. Mendeku inuzentea gauzatu da).



1. HAURRA: *(Ahopeka)* Apatxitok gehiegi jan dik.

4. HAURRA: - Adiskideok, tindatutako ilea pakidermoen osasunerako kaltegarria dela jakina da. National Geographic-en...

3. HAURRA: - *(4. haurrari bere diskurtoetan sekula kasurik egin gabe, 2. haurraren aurpegi zurbila ikusita)* Ez hadi damutu orain. Zuen ama ile tindategi gehiegitan egon zuan bere ideia falta disimulatzeko asmoz.

1. HAURRA: - Apatxitok gehiegi jan dik.

2. HAURRA: - Gure ama...

3. HAURRA: - *(2. haurrari)* Zuen ama mozkor hutsa izan zuan, ginebrari adarrak jartzen zizkioan mozkorra. Eta hire eten-gabeko harridura aurpegia, mukiak beti espartzuarekin garbitzearen eragina duk.

1. HAURRA: - Apatxitok gehiegi jan dik. Arduratuta nagok. Garuntxo gordinak jateak bihotzerrea ematen dik.

2. HAURRA: - Gure ama... ama ona zuan.

4. HAURRA: - Adiskideok, inor ez da ona edo gaiztoa jaiotzez. Hainbat psikiatra adituren eta filosoforen arabera...

3. HAURRA: - *(4. haurrari erdeinu aurpegi jarritz, 2. haurrari hitz egiten dio)* Zuen ama urdanga hutsa zuan, hik heuk esan huen, edozein txikitero koadrilaren aurrean kuleroak jaisten zituen horietakoa.

2. HAURRA: - *(la negarrez 3. haurrari)* Gure ama ez... zuena bai, urdangetan mari-purtzil emagalduta prostitutena zuan.

4. HAURRA: - *(Giroa lasaitu nahian)* Adiskideok, adiskideok, adiskideok. Lasai, lasai. Ene aburuz ez zarete geure hizkuntza maite eta aberatsa zuzentasunez erabiltzen ari. Hainbat eredu artean, "Zure ama urdangena zen", da hobestekoa, beste erabilera hau gaitzetsi gabe ordea, "ama urdangena artean zure ama urdangena zen".

2. eta 3. HAURRAK: - *(oihuka)* Aski duk!

1. HAURRA: - Errespetu apur bat, mese dez. Ez duzue ikusten? Ez zarete lotsatzen egin dugunaz? *(Denek elefantea begiratzen dute)* Apatxito gizajoa. Oso

digestio astunak ditik, ez genioan sekula poltsak jaten utzi behar.

4. HAURRA: - Beharrezkoa zuan aztar-nak ezabatzea, Sabino Arana garbitzailak esan ohi zian...

3. HAURRA: - *(2. haurrari)* Zuen amak beti kalitate zirtzileko merkantzia eta arropa lapurtzen zian etxerako. Hire lixazko galtzontziloak horren eredu nabariak dituk.

2. HAURRA: - Baina ni ez...

3. HAURRA: - Ez hadi inozoa izan! Hik askotan esandako argudioak errepikatzen ari nauk, egunero aldarrikatzen huen: "Esne-hautsa suntsitu" "Geure amen ideia lizunak burutik al-

dendu behar dizkiagu", eta horrelako leloak. Hori egin diagu, burutik kendu.

2. HAURRA: - Hitzegiteko modu bat zuan. Azkenaldian oso denbora gutxi ematen zian nirekin. Gainera, gorroto ditiat potitoak, baina zortzi urterekin bularra hartzea ez omen zuan normala, eta horrek amorratzen nindian. Baina gauza bat haserretzea duk... eta bestea bihurkina buruan sartzea.

3. HAURRA: - Ñabardurak dituk horiek. Berandu duk, berandu damutzen hasteko.

4. HAURRA: - Ez nuke trabarik egin nahi zuan elkarriketan, baina potito hitza euskara jatorrean...

3. HAURRA: - *(4. haurrari)* Muturrekoa emango diat, e!

1. HAURRA: - Ixo! Apatxitok haizeak ditik! *(Isilune baten ostean, elefanteak purrustada antzekoa egiten du).*

1. 2. eta 3. HAURRAK:- Osasuna!

4. HAURRA:- Jainkoa lagun.

2. HAURRA:- Ongi egin al diagu?

3. HAURRA:- Jakina. Mundu osoan eza-gunak izango gaituk eta geure kasuak jurisprudentzia sortuko dik. Ondorengo amak ez dituk bere semeen sentimenduekin jokatzera ausartuko. (*Kantatzen*). A las barricadas! A las barricadas! (*Isilik*) Argudio hauek zailak dituk sostengatzen, ezta? Kakazaharra!

1. HAURRA:- Apatxito domadorearen-gana eraman behar diat almax injektatzeko.

4. HAURRA:- Hara, ez dizkik hondarrak jan eta! Portaera onek agintzen duten legez, onartezina da plateran ezer uztea. (*1. hauraren begirada zorrotzaren aurrean.*) Baina pakidermoen kasuetan beti

2. HAURRA:- Bai, baina... zuek... zuek txintik esan gabe egin duzue lana. Bakoitzak bere ama akabatuko ziala agindu genian, esan eta egin, ez diat inor derrigortu. Gainera... bihurkinaren ideia hik izan huen.

4. HAURRA:- Nik, behintzat, aitzakia zeukaat epailearen aurrean aitortzen badugu. Amak Hiztegi Batua kontsultatzea debekatu zidan eta hori ezin nian jasan, horregatik intelektual guztien interesak babesteko, zerbait eredugarria egin behar nuela argi neukaan. Aukera profita-tu nian, besterik ez.

1. HAURRA:- Etxeko txakurrari kanpaia jotzen laguntzeagatik ama haserretu zuan, Beltz gizajoak kristoren beharra zeukaan, ordea. Hala ere, ez zuan beharrezkoa Beltz sakrifikatzea. Horregatik adoptatu nian Apatxito, baina amak ez zian ulertu nahi izan elefante batek munduko maitasun guztia behar duela eta, asaldatuta, Apatxito etxetik bota nahi izan zian. Berekoi halakoa! (*Tu egiten du lurraren kontra.*)

Orduan argi izan nian dena! Ama edozeinek inoheratzen zuan! Beste gizon baten semea! Ezin nian onartu. Sasikume batekin nire jostailuak partekatzea onartezina duk! Baina orain... ez diat dena hain argi.

4. HAURRA:- Barkatu atrebentzia, baina nola dakizu... zure aita... zure benetako aita den?

(*2. haurrak 4. haurrari zaplaztekoa ematen dio.*)

2. HAURRA:- (*3. haurrari*). Eta zuen amak zer egin zian?

3. HAURRA:- Ezer ez. Gure ama benetan zoragarria zuan.

2. HAURRA:- Eta orduan?

3. HAURRA:- Beti egin nahi izan diat iraultzaren bat.

4. HAURRA:- (*Masail gorritua laztanduz*) Badakit gizakiaren behar naturala dela, baina, zergatik ari haiz negar egiten?

3. HAURRA:- Ez zakiat, uste diat aitak bihurkinaren falta sumatuko duela.

(*Apatxitok korrika alde egiten du guztiak harrituta utziz.*)

1. HAURRA:- Gauza bat aitortu behar dizuet, Apatxito bulimikoa duk.

egin zitzakeagu salbuespenak.

2. HAURRA:- (*3. haurrari*) Gorroto al nauk?

3. HAURRA:- Zuen ama arduragabe hutsa izan zuan beti... (*Bere diskurtsoa etenez*). Beno, bai, haserre nagok. Hik laguntza eskatu higun eta konbentzitu gintuan denok, horregatik "amatxoen utzikeriaren kontrako asanblada" sortu eta operazio militarra antolatu genian. Eta orain damutzen haiz...

2. HAURRA:- Ama haurdun zegoan, baina triparen formarengatik haurra aitarena ez zela bistakoa zuan. Duela egun batzuk, eskolako futbol partiduan falta egin nianean, beste ekipokoek "putase-mea" oihukatu zidatean.

Xabier
López Askasibar

hizketan mutu

a-Gabriela, ikusi nola begiratzen didan, ez dit begirik kentzen!

g-Ez du begirik biltzen, ez, Angela. Zer ote dauka buru horretan?

a-Deserrian sentitzen da bera ere orain. Begiraitozu, malenkonia dario.

g-Uste duzu gurea bezalako atsekabea dela?

a-Bai, ziur naiz; edo ez?

g-Gu bi gara. Bera bakarrik gelditu da.

a-Orduak ematen ditu orain ordenagailu aurrean. Argazki DVD guztiak mahai gainean ditu. Artxibadoretik atera eta dorre bat altxatu ondoren, pape-
ren gainean zabaldu ditu barajako kartak bailiren- dio Angelak -Karta ego-
kia hartuko balu... Ikusten al duzu
zauden tokitik zertan ari den orain, Ga-
briela?

g-Ikusten dut bai, atzo argi printza bat
saihesteko pantaila mugitu zuen eta.

a-Garai batean argiaren bila ateratzen
zen, gaur egun, ordea, iluntasuna bila-
tzen du.

g-Hara, Angela! Zuri begiratu eta gero
aldatu du DVDa: Italia 2006. Venezia-
ko karpeta zabalitzen ari da:

Aix-en-Provence: 2006ko abuztuan egindako bidaia, Isabelek Italiara egiten zuen bigarren bidaia. Kotxez joan ziren erosi berria zuten Golf gorrian. Aix-en-Provencen gelditu ziren gaua pasatzeko. Postaletan azaltzen ziren labanda soro zoragarriak ikusi ez zituzten arren, gozo-gozo ibili ziren herriko plaza eta inguruko kaleetan. Azokako lore freskoek gonbitea luzatzen zieten bisitariei eta, orduan, inpultso batez, lore sorta ederra oparitu zion. Mirenen begi distiratsuak ikusteagatik bakarrik, egunero emango zion ezusteko opariren bat. Begirada bizi hark hatsa ematen zion Isabelen egunerokoari.

Provenceko ardo beltzak animatu zuen afari arina, gaueko plazeraren ataria izan zena. Orain isiltasuna aurkitzen du izara artean, orduan hainbeste maite izan zuen gorputzaren epeltasunaren orde.

Venezia: panpin dendako erakusleihoa: Isabelek gogoan dauka Venezia egindako lehendabiziko bidaietan non erosi zion portzelanazko panpina. Nola, orduan ere, inpultso batez, garagardoa hartzen ari zela "Piccolo Martini" tabernako terrazan, dirua mahai gainean utzita, altxatu eta dendan ikusi zuen panpinarik ederrena erosi zion, orain berari begiratu balio bezala dagoen panpina hori bera. Mirenek ez du aurpegi zurbileko panpina eraman, bere-bereak ziren gauzak soilik bildu ditu.

a-Ez daukat ahazteko Isabel dendan sartu zeneko une hura: indar ikusezin batek bultzaturik bezala apaletan ginen panpina guztioi begiratu eta gero nigan iltzatu zituen begiak. Garestienetakoa nintzen arren ez zuen kezarrik azaldu *eta prego, bilduko duzue ongi-ongi?* Visa txartelaz ordaindu eta gero, goxo-goxo besarkatuz eraman ninduen. Turista hark bizi zuen pasioa senti nezakeen bularren kontra estutu ninduean.

g-Ni, berriz, biak elkarrekin zeudela aukuratu eta erosi nin-



duten. Isabelek Venezia egiten zuen bigarren bidaia omen zen hura. Baziren ni baino maskara ikusgarriagoak denda handi hartan, baina nire dotoreziak txunditu zuen Isabel. Eskutik helduta sartu ziren Botteri kaleko dendan. Isabel eta Miren, bi emakumezko.

a-Bi emakumezko. Pasio sutsuena bizi izan zutenak. Dolua ere handia bizi behar izango dutenak. Bihotza deserrian dutenak.

g-Hizketan baneki hitz goxo bat esango nioke Isabeli, gu bezalaxe geldi ez dadin, apal batean bizitzan ahazturik.

**Izaskun Etxeberria
Zufiaurre**



- Ba al zoaz Gasteizko festetara?
- Ez, gaur Anjelekin aterako naiz, lasai-lasai. Zerbait jan eta...
- Parrandarik ez?
- Ez, berak bihar lana du eta.
- Nik zure adina banu...
- ???...
- Orain disfrutatu behar duzu Enara, urteak berehala pasatzen dira. Jendea ezagutu...
- Eta ez al dut egiten? Ni gustora asko bizi naiz.
- Bai, baina, ez da hori. Gaztea zara, gero ere denbora izango duzu mutila bilatzeko.
- Ama, ez hasi. Ni Anjelekin oso gustora nago, badakizu. Poztu egin beharko zenuke.
- Baina, begira zure lagunei: Ikerne, Ainhoa, Izaskun... ederki bizi dira, hara eta hona, gaur batekin eta bihar bestearekin; "Carpe Diem", neska.
- Ni ere bizi naiz ama, eta pozik, gainera.
- Zu azkarregi zahartu zara, azkarregi formaldu. Nik ez dut esaten Anjel mutil txarra denik, baina... Gero damutu egingo zara
- Damutu? Eta zer egon behar dut, ezer egin gabe gero damutuko naizen beldurrekin? Mesedezeh... Orain oraingoa, gero gerokoa.
- Horixe esaten dizut nik; orain oraingoa; atera, bidaiatu, lagunekin egon, mutil berriak ezagutu...
- Beno ama, nahikoa da! Mutil berriak, mutil berriak... ez daukazu beste konturik! Zer uste duzu, horrek egiten duela zoriontsu? Ahalik eta mutil gehien pasatzeak?
- Beno beno, zer du horrek txarra? Zure adinean eta... modernagoa zinela uste nuen!
- Tira, ez esan umekeriarik! ez du ezer txarrik baina ni maiteminduta nago, Mai-te-min-du-ta. Ea ulertzen duzun, gustora nago eta ez dut modernarena egin beharrik.
- Lasai eh... Nik bakarrik esan nahi dizut gero ere bizitza osoa daukazula tipo batekin egoteko, munduko den-

zu berri bat

- bora guztia haren ondoan nazkatzeko, eta ahal den bitartean gozatu behar duzula. Bestela damutu egingo zara. Ni ere hamabost urterekin hasi nintzen zure aitarekin...
- Eta? Zu damutu zarelako nik ordaindu behar al dut?
- Aizu! nik ez dut horrelakorik esan eh, inoiz ezertaz damutu naizenik. Ni oso gustora nago egindakoarekin, baina garaiak aldatu egin dira. Zuek, orain, askatasuna duzue nahi duzuen egi-teko, eta, hala ere...
- Askatasuna? Horixe nahi dut ba nik, askatasuna zer egin erabakitzeke. Zoriontsu izateko ez dago bide bakarra. Eta zuk, ama, zure arazoa konpondu beharko zenuke.
- Nik neure arazoa? Ze arazo?
- Bai, zu eta aitaren artekoa. Onartu; zuek ez zaudete maiteminduta, ez zarete zoriontsu elkarrekin. Ez al da hala?
- Beno Enara, ez esan txorakeriarik.
- Zergatik zaude aitarekin? Egoteagatik, ez zarelako ausartzen begiak ireki eta arazoa ikusten. Erreta zaude, nazkatuta, itota, eta horregatik egoten zara aita kanpora noiz joango zain.
- Aski da! Ez dizut horrelakorik onartuko; ez dakizu zer esaten ari zaren. Zu ez zara inor gure gauzetan sartzeko. Zer ote dakizu zuk bizitza...
- Ez, entzun zuk orain niri. Egiak min ematen dizu, ama. Berrogei urte dituzu. Ziru al zaude bizitza osoan horrela jarraitu nahi duzula? Bide bat hartzeak ez du esan nahi amaieraraino jarraitu behar duzunik.
- ...
- Ez, ama. Ez zara bizi. Mundua jan nahi zenuke, baina ez zara ausartzen, eta zure arazoak nire egiten dituzu!

- Zergatik diozu hori?
- Nazkatu naiz ama, nazkatu zure ezinezko ametsak nik bete beharraz. Jaio nintzenetik izan nahi zenukena ikusi duzu nigan; zure neurria eraiki nauzu, zure ilusio galduen neurria. Dantzan apuntatu ninduzun, eta gitarran. Gorroto nuela jakinda. Inoiz ez didazu galdetu zer nahi nuen. Ez. Zuk jantzik zenituzken arropak erosten dizkidazu. Nik aukera izan banu... esaten didazu beti. Baina neuri ere aukerak ukatzen dizkidazu, erabakitzeke aukerak.
- Baina Enara, maitea, ez da hori nire asmoa...
- Zabaldu begiak, ama. Hau ez da bidea. Zergatik izan behar dut nik zuk izan nahi duzuna? Zure sabeletik irtena naiz, ama, baina ez naiz zu berri bat.

Ione Gorostarzu





Aretxabaletako Enara

Joan da, enara beltzak bezala, baina denborak ez du berak utzitako arrastoa ezabatu. Senideak, adiskideak, lankideak, ikasleak, herrikideak, irakurleak eta inoiz bera ezagutzeko aukera izan zuten guztiak hunkitu zituen Aretxabaletako poetaren heriotzak. Horren seinale izan ziren Euskal Herriko txoko ezberdinetan egin zizkioten goratzarre eta omenaldiak: horien artean, *Hatsa* Elkarteak irailean Senperen egindakoa edota hilabete berean Burlatan Nafarroako Poesia Biltzarraren baitan *Aspaldikuk* eskainitakoa. Omenaldi guzti hauean parte hartu zuen Idazle Eskolak. Baina benetako agurra azaroaren 13an Bergarako UNEDen bertan egin zioten. Ikaskide eta adiskide izandakoaren sormen-lanak irakurritz gogoratu zuten, txalaparta eta irrintzi artean. Enara hegaldatu zen orduan, eta lurrean geratu ginenotako batzuk argitaratzeko prest utzitako *Itsaso kontra bat* liburuari azken ukituak ematen jarraitu zuten; eta beste batzuk Idazle Eskolako beka «Karmele Igartua Bengoa Beka» deitzea erabaki zuten; eta beste batzuk monografiko hau prestatzen hasi ziren, bere arrastoa ezabatu ez dadin.

Karmelean gogoan

*Karmelean
Igartua Bengoa
«Denpora ezin da atrapa»*





le premia zegoen eta niri egokitu, zorte itzela izan nuen. Gainera haur txikiegaz hasi nintzen, gustura. Bai, nire ogibidea izan da eta asko gozaten dut ene ikasleegaz, beti saiatu naiz egon zedin hollango konplizitate bat, ikasle baino zertxobait gehiago izan dira neuretzat, hainbeste ordu egin ditugu elkarregaz! Neure lankideak lagun minak ere bilakatu dira eta bide horretatik ere ibili naiz testu sorkuntzan, hizkuntza eta ingurunea lantzeko besteak beste. Bai, nik heziketa lanetan emon dut egunerokotasuneko zati handi bat. Eta gertatu izan zait askotan, idatzi ezin dudan orduetan etortzen zaizkidala idatzi beharrekoak gogora; horregatik, egunero topatzen dut lekutxo bat eta denbora bat, ez-denboretan eta ez-lekuetan otutakoak idazteko. Idatzikoetatik batzuk neuretzat gordetzen ditut, guztiak nigandik kanporako eskaintza izan nahi duten arren.

Eta gazte ezkondu zinen eta ama izan...

Holan suertatu zen, berez-berez etorri zen guztia. Eta pozik hartu dut bizitzak emon didana, familia, senarra, seme alabak, euskarri inportantea izan dira niretzat.

Gogoan dut nola eman zizuten 2007.urtean Felipe Arrese Beitia saria. Zoramena izan zen Idazle eskolan ginen guztiontzat, holako sari inportantea gutako bati... Hor egin zen Karmele idazle?

Ez zehazki, ni ezagutzen nautenek badakite beti idatzi izan dudala. Eskolan hainbat antzerki lan idatzi dut gero ikasleek antzezteko, irakasteko materiala ere bai, gutunak... betidanik izan dut idazteko grina. Baina askotan egiten ditugu gauzakerabateko kontzientzia barik. Idazten nuen, bai, baina bide honetan Idazle eskola erabakigarria izan da neuretzat, berari esker hasi zen gauzatzen, benetan, nire idazteko pasioa, esango nuke saria bera baino inportanteagoa izan dela Idazle eskolan jaso dudana, irakasleak, azkenean lagun bilakatu diren ikasleak... Idazle eskolak asko lagundu dit arnasa hartzen, geratzen eta denpora hartzen idazteko eta irakurtzeko. Arreta gehiago ipini dut egiten dudan guztian. Eta honela deskubritu nuen poesia, euskal poeten lana, Gandiaga, Artze, Urretabizkaia, Lasa eta Irastortza beraren arrastoetan. Bide horretan, Marina Tsvié-

Karmelek hitz egiten du eskuekin, hitz egiten du bere belarritako eta zapiekin, begiekin, baita bere ahotsaren melodia gozoarekin ere. Badau hizketarako, adierazpiderako halako energia berezi bat. Berak, bai, berak "atrapau" egiten du entzulea, irakurlea.

Duela bost urte elkar ezagutu genuen Bergarako Idazle eskolan, gogoratzen? Zu bigarren mailakoa eta ni lehenengokoa, bazegoen nire aldetik halako begirune bat zuenganako. Baina diferentzia hura laster desagertu zen, hasi ginen elkar lanean ilunabar literarioak antolatzen, poesia idazten, mintegiak osatzen eta esan liteke Karmelek, Gorkak, Iñakik, Ainarak, Carmenek osatu genuela idazlegai kuadrilla. Tere Irastortzak gidatzen gintuen eta Karmele, zu zeu izan zinen idazlegai izatetik idazle izatera pasatu zinen lehenengoa, Felipe Arrese Beitia poesia saria eskuratu baitzenuen eta *Hitzak orbainetan* zure lehenengo liburua argitaratu. Beraz, aurrerantzean izango zinen; KARMELE IGARTUA BENGEOA. Horrela egin zinen idazle ofizial eta gu harro, pozik eta itxaropentsu.

Aretxabaldar osoa, ezta, Karmele?

Bai, nahiz eta Bergaran jaio nintzen, gure aita Daniel, hangoa baitzen, urte bete nuela joan ginen Aretxabaletara, ama Montse, bertakoa da eta hantxe hazi nintzen nire hiru nebegaz. Askok zor diot herri honi, han osatu bait naiz. Pentsatu gu-

ra dut neuk ere emongo niola zerbait.

Eta zure lehen lan urratsak Kurtzebarri eskolan. Irakaskuntzarako behar omen da bokazioa, zuk hortik puska bat, bai...

Gazte-gazte hasi nintzen, artean irakas-

taieva errusiar idazlea deskubritzeko parada ere izan dut eta haren Winloko gutunak itzuli ditut.

Marina Tsvietaieva, ezezagun genuen idazle hau, nola ahoskatzen den ere zaila da guretzat, baina zuk hain samur esaten duzu, igartzen da zure barruan lekutxo bat egin diozula, berririburuzko hitzaldia ere eman zenigun eta hemen, konfiantzan, aitortu behar dut ni neu ere harrapatu nauela idazle honek. Zer eman dizu Tsvietaievak, Karmele ?

Puf! Ez da erraza erantzuten. Bere lana irakurri behar da beste bati azaltzeko zer duen idazle honek. Nik neuk ere ez nuen ezagutzen Tere Irastortzak Idazle Eskolan haren berri emon zigun arte. Baina zelako emakumea zen, zelako idazlea! Bizimodu gogorra suertatu zitzaion, gosea eta miseria latzak pasatu zituen, seme alabak galdu... Eta halere zelan jakin zuen bizitzen, idatzi ederrak laga dizkiugu: gutunak, saiakerak, olerkiak... "Bizi ahala idatzi" halakoxea izan zen Tsvietaievaren egunerokotasuna. Marina gertukoa dut, berak idazten zituenengatik, emakume zelako ere bai, seguru, bere berbak, bere hausnarketak ulertzen ditudalako eta idazle miresgarria zelako. Bai, onartu beharra daukat, sakonetik elikatu naiz bere lanagaz, Tsvietaievak asko bizitu du nire sortze lana. Hainbat arlotan identifikatu naiz beragaz, bai pertsonalki eta baita idazteari dagokionean ere. Bere gutunak itzuli nituenean, bere izatea eta idaztea zukutu nituen. Itzultzen ere asko ikasten da, gozamina hartu nuen. Poeta gomendagarria da oso eta maiz oroitzen ditut haren berbak. Berak dio seme alabak direla gure maitasunaren lekuko eta hori ere aplika daiteke sarritan idazleak bere buruari egiten dion galderari erantzuteko; zertarako idatzi? "Jasotakoa eman eta eman egiteko -idatzi beharra daukagu- izango ez garenerako".

Eta saria jaso ondoren "Hitzak orbainetan" zure liburua argitaratu zen. Zer sentitu zuen orduan?

Poz handia, ikaragarria, desio ezkutu bat bete nuen. Hitzek orbainetan duten senda-indarraren beste aldean, orbainek hitzetan utz dezaketen memoria agerian uzten dute liburu honetan. Iragana orbainetan bizi delakoan, garena berritze-

aren kontzientzian ere badagoelakoan, eta esku ahurrean izan nahi duguna irudika daitekeelakoan idatzitako poema liburua da. Eta liburu hauxe herriaren aurrean aurkeztea ere oso hunkigarria izan zen. Senarra hil eta gutxira izan zen eta sentitu nuen jendea hain gertu, hain epel nigaz. Idazle Eskolako lagunak ere ondoan nituen, neure poemak irakurri genituen eta ikusi nuen ailegatu egiten zirela, ulertu egiten zituztela, hura izan zen poz betekada! Ama eta izebak ere hantxe, aurreko iladan jarrita, ene berbakentzuten eta konprenitzen. Poeta batek ez dauka gehiago eskatzerik.

Eta hor zabaldu zen zure bidea. Esango nuke lehenengo liburua eta gero bide eman zeniola zure barruko berba jarioari eta handik gutxira etorri zen "Denbora enaren hegaletan" Zure bigarren poesia liburua. Izenburutik hasita eta barruko hainbat poesia irakurrita esan daiteke denborak nekatu duela zeure burua.

Bai, denporak, bakoitzaren denporak, norberarenak asko baldintzatu ditu azken boladan nire urrats guztiak. Ezin ditut nigandik apartatu bizitzea tokatu zaizkidan gazi-gozaok eta horiek nolabait islatuta daude poema liburu honetan. Denpora ezin da atrapau, ez da bihar edo atzo, ni naiz denpora guztia, ez dago besterik. Denpora hori pertsonifikatu gura neban. Eta enara beltza topatu nuen denpora hori islatzeko, enara ez delako geratzen alanbretan, ez da pausatzen ur ederretan, enara beltza, bizia sortu eta geroan izateko bakarrik, kabitzen da denbora geldian.

Zure idatziak irakurrita, batzuetan zuzentzen dizkiozu "zu" bati, besteetan "hi" bati eta "guri" ere bai. Nor dira zure lanetan topatzen ditugun "zu", "hi", "gu", horiek?

Ba nik uste denpora guztiaren bilkura direla. Nik idazten dudanean argitaratzeko, norbaiti zerbait komunikatu gura diot. Eta zu, hi, gu horiek ez dira beti pertsona berdinak, batzuetan pentsatzen dut ez ote naizen ni neu ere pertsona horiek. Ez diot idazten pertsona konkretu bati, baina bai gertuko norbaiti, elkarriketagile asko ditut bidean.

Eta poema asko dira hunkigarriak, agian bereziki ezagutzen zaitugu-



nontzat, badira zure esperientzia pertsonal baten ondoren sortuak.

Beti elikatzen gara bizi izan dugunaz. Baina ni saiatu naiz haratago joaten. Ezin gara geratu gertatu zaigun "zerbait" horretan, aurrera egin behar da. Zoritxar bat tokatuta ere ezin zulo horretan hondoratu. Halako gertatu zaigu, baina... hemen gaude, lurra daukagu oinpean eta jarraitu egin beharra dago.

Diotenez idazteak badauka balsamikotik. Zer diozu zuk? Bada terapia bat beldurrak uxatzeko?

Ez dakit "uxatu", hori ete den berba egokia. Baina bai, barruan beldur bat daukagunean, esan egiten badugu ahotik kanpora, konpartitu egiten badugu, ez da hain beldurgarria. Bai, noski, idaztea bada terapia ere, berbek badaukate balsamikotik.

Beraz, idazten diozu, beldurrari, maitasunari, minari...

Bai, baina ahaztu barik minagaz batera pozak datozela. Dena nahastuta dago eta nik hala diot neure poesia batean; "Dena etortzen da batera eta igual ez zaizkit kabituko isuri guztiak batera".

Zure lanetan ere ageri da memoria...

Pertsonak izaten du batzuetan, nik bai behintzat, esan behar bat, ondare bat utzi beharra. Eta berbek emoten dute horretarako bidea. Geuk esku-ahurretan daukaguna, besteek ere jaso dezaten.



Karmelegartua Bengoa

Jaio zen 1959ko uztailearen 16an eta joan zitzagun 2010eko abuztuaren 20an. Lagunek, familiak, egin genion omenaldi-ekitaldia azaroan Bergaran, bere idazteko espazio propioan. Lurra, ura, sua eta airea, lau elementuen gainean oinarritu genuen saioa.

Artistak ez dira desagertzen obrari esker. Horregatik ere zu, Karmelego, gure denbora guztian egongo zara gurekin.

ITSASO KONTRA BAT-Pamiela, 2011

Jose Angel Irigaraik, Pamielako ordezkariak, hauxe esan zuen Karmeleren azken lan honi buruz: «Karmelego poeta puska da. Izatearen eta ez izatearen mugan idatzi du poesia liburu hau, eta egoera horretan sortutako poesiarik ez da ezagutu euskal literaturaren plazan».

Karmelego zen emakume librea, ama, irakaslea eta idazlea. Euskalduna eta aber-tzalea. Karmelego zen bakarra, errepikaezina.



Poesia da laburpena.

Bizitzarena.

Pentsamendu oso bat zehatza, zehaztua.

Hitz bakoitzak aukeratua behar du, koma bakoitzak hausnartua.

Eta, hitz egiten duten isiluneak.

-zer eta nola-

Poesia da laburpena: izana esanetan eta batzuetan orbainak hitzetan.

Karmelego Bengoa

Idazlanak:

- *Hitzak orbainetan* (Euskaltzaindia, 2008)
- *Denbora enaren hegaletan* (Pamiela, 2009)
- *Itsaso kontra bat* (Pamiela, 2011)
- *Winloko gutunak* (itzulpena -EGAN aldizkaria, 2009)
- Hainbat iritzi, narrazio, antzerki lan ugari. Gehienak irakurgai gure weborrian: www.idazten.com

Itziar Gomez



elementuotan

I.- LURRAK LARRUAK bezala

Lurrak xurgatu egiten du geurean lanbroa
eta ferekatu egiten du haizeak.
Baina , nahi izatera, arraildu dezake eguzki kiskalgarriak.

Beste nonbait eta uretan sortuko zen bizia, nonbait, noizbait, nolabait.
Baina orain behar du lurra -- behar duen bezala larrua --
geure biziak.

Larrupean sortzen da dena eta larrupera itzul dadin sortzen dugu
geurez dakiguna, geureekin besteentzat dakiguna,
lurrean.

Eta lurra ez da gurea,
eta lur hau ez da gurea,
baina geu lur honetakoak gara, hemengoak

halabeharrez eta intentzio osoz.

Eta harantz --honantz gabiltzanean ere geure lurrera itzultzen gara
geure hizkuntza bidez, euskara bidez.
Eta geure larrupetik ateratzeko, mundua eta dena, eta daitekeena
geure eskura jartzeko behar dugu hitza
behar ditugu izendatu harriak eta harpeak eta ernaltzeak
eta basoak eta materia : ama -- mater --
gaia.

Eta hitzak larrupean ez duguna jartzen digu eskura
eta larrua ferekatuz eskuekin larrupera dakarkigu
ukimenez lurra ematen duena, dena
eta lurra eusten duena

eta lur azala
fereka bidez uhin bihurturik
adurra da,
geure indarra
adur: ama --mater --
gaia

eta adurra ez da geurea
baina ekartzen gaitu geure baitara
nonbait, noizbait, nola edo hala
Lurra eskaintzen baitizkio mugak infinituari : ur, aire, su (r)



II.- URA

Eta lurra deitzen zionagu
baina urezko dun gure mundu hau.
Eta geu ere ur.

Eta bizia dun isuri bat geure baitan,
eta bizia zekarren geure ume-tokiak uretan
eta ur dun mandarinazko muxua edo marrubizkoa
edo makatza arratsalde erdian.

Eta ur dun izerdia
eta ur dun lainoa ere.
Eta geu gaitun urezko,
batez ere, badakin, itsasoa , batzuetan, laino dagoenean
Hendaiako barraraino,
Itsaso kontra honetaraino.
Eta orduan guk hi haugu maiteago
itsaso-peko izarrak baino,
eta algek eta karakolek
itsas ertza baino.

Euria zekarren sarri haizeak
eta oskorriak
-- suzko dirudien arren
ortziak lurraren muga --.
Eta orduak geu ere,
urezko, haizearen zain geratzen gaitun
kizkurtu gaitzan
itsasoa bezala,
hauspotu gaitzan
su nahi dugunean
fereka gaitzan
urtar
lurtar
su(r)ko



III. - SUA

Gorria. Horia. Erregarri hainbatetan.
Su gorriak garrasi eragiten digu :
gorputz-arimak odolez
larru gorri uzten gaituen hori,
utikan su horri!
larru gorri eta haragi bizi uzten gaituen su hori,
eztarriak botatzen ez diren orroekin gorritzen dituen su hori,
utikan, horregatik , arren!

Baina eh...
ikusi dun sua ikazten,
baina ezagutu dun egun gorriekin amodio eder gorria ere,
eta esnaldi guri askoak!
eta isildu haiz odolaren mintzoari bide emateko,
eta mintzatu haiz larru gorrietako orbainak
hitzez ferekatzeko.
Eta ez haiz ikaztu
eta asmatu dun hegatzean bezala eguzkipean ibiltzen,
eguzkiak erre gabe
eta hurbildu haiz oskorrietara,
tarte hartuta.

Tartea: tartea dun onarpena,
gehitzea nahiago izatea, baztertzeari alde batera utzi gabe;
jakitea garela inozente eta errudun,
abertzale eta munduko,
aingeru eta deabru
atzoko eta biharko
lotu eta libre,
ausart eta koldar,
lurreko eta zeruko,
suzko eta urrezko
hemen bertan, lurrean

urdin eta berde
zuri eta beltz
gorri eta laru
sua bezala kolore guztietakoak
haizeak hauspotzen gaituen bitartean
edo Mozarten adagioak.



IV. - AIREA

Airezkoa haiz, zurrenara, honez gero.
Hau *ala* hori, hemen *ala* han
erabaki beharrean,
erabaki bakoitzak dakarren errenuntziaren zamaz arinduta
airezko eta arnas libre .
Onarpenarekin: hau eta hori, zu eta biok, hura eta hirurok.
Edo hor eta hemen, zu eta ni, gu biok, hura eta gu biok,
denok ferekatzen asmatzen dun eta orain,
atzoko hire hitzekin eta lanekin
haizeak bezala.

Halabeharrez eta gainera intentzio osoz
--oraingo honetan ere --.

Zeren eta azkenean fruituz gainezka egiten duten zuhaitzek bezala
mukuru eta zamatsu lurra ukitu arte makurtuta egon ostean,
nahiago izan dun libre, aske, denean...
nahiago izan dun, berriz,
materia: ama- *mater* – gai: ur, elur, lur, adur...

Airezko

arin, zama gabe :

geure baitara sartu eta geure zamen aringarri ere bai,
aspaldion;
amestutakoaren aldean zoragarri izan daitezkeela gauzok
xuxurlatuz ere bai, berriz ere;
hik hostoz eta paper puntaz berezitatuko orri artera arnasa eraginez
ere bai,

aurrerantzean,

ez hengoenerako hire oroitzapen, hitz eta joste-lanak patxo batez
markatuz ere bai

aurrerantz honetan , Karmelegoan .

Airezko , honez gero, Karmelegoan :

adiskide, lagun, irakasle, idazle, ume, ama, eme

hemen.

Tere Irastortza



itsasoa

Itsaso
urdin, sakona,
ur guztien sorleku,
lainoen ernal-toki,
euri emankorren arbaso,
arrainen bizileku,
ibai nekatuen atsedena,
haizekirrien pausaleku,
ekaitzen errepide,
marinel sufrituen
jaun eta jabe,
gizaldietan zehar
eta gaur egun ere
ikaraz eta begirunez
gaitzetsia eta onartua,
gorrotatua eta maitatua.

Itsaso handi,
zabal, betikoa,
zure mezu isil,
gazi-gozoa
etengabe
pozez eta trajediaz
jantzirik doa.

Iñaki Zubeldia

ispilua

Lagunen bazkarian
aurpegi hanpatuta agertu zinen,
zurbil, ile barik,
hondoa jota.

Asko nuen kontatzeko,
eskertzeko.
Bi muxu eta
hiru gauza banal;
besterik ez nizun esan.

Ez nintzen zure alboan jesarri.

Mahaiaren bestaldean zinemaz
aritu ginen,
zuregana begiratzen ausartu barik.

Niri ere heriotzak
beldurra
eman zidan.

Yoseba

usaina

Esku txikiak
heldu egin zizun
barru-barrutik,
eta sentitu egin zenuen
haren premia;

etsi, heldu,
bizitzari.

Esku txikiak
lur usaina du,
lur eta haragi gorriaren
usain berria.

Lur eta haragizkoa
zarela esatera dator.

Behin,
lau hankatan, larru gorririk
ibilitakoa zarela,
baso honetan,
azala miazkatuz
uluka,
bizitzari darion usainari segika.

Eta denbora ahaztu hari tiraka
dator,
lur zaharrez eta haragi gorritz
egindakoa zarela gogoratzera

Alaitz Vives

«Ur» jainkoa!

zu!
ixuri guzien
itxura!

Hango mendietako,
elur lilluren
mihura!
Neure gainean
urratzen diren
irurtzuri eta zurtxurien
iturria!

Neure egarria
agortu arte,

zure urrupatzera,
utzi nazazu, otoi!

Orain,
atzo bezala,
bai, agian, bihar ere,
urtu dezazun,
gizonen barnean,
agotik
zakil puntaraino,
edo berdin,
emeen-zilo zolaraino,
zure bizi-hazi xuria!
Hala biz!

Auxtin Zamora



sua izan zaitezzen

Su gorriak zirikatzen nau
dantza zoroan
eta arnasa eskaintzen diot

-Izan zaitezzen-	SU	a	
Argi ta ta	SU	a	
ta	SU	-indartsu-indartsua-	
Garbi ta ta	SU	nez	
-Beti izanen baitzara-	SU	a	
Leial ta ta	SU	a	
ta	SU	-gorri-gorri, gori-goria-	
Umil ta ta	SU	nez	
-Beti izanen baitzara-	SU	a	
Maitagarri ta ta	SU	a	
ta	SU	-bero-beroa-	
Ezti ta ta	SU	nez	
-Beti izanen baitzara-	SU	a	
Eder ta ta	SU	a	
ta	SU	-kartsu-kartsua-	
Mai ta ta	SU	nez	
-Izkiriatu baitituzu-	SU	az	
Paper zurian musen hatsa i	SU	riz	-paradisu urruna hurbilduz-
letrazko mu	SU	ak	-amultsuki emanez-
bihotzen lirika gose	SU	karra	-xuxurlaka areagotuz
Olinpoko olerki hoberenak	SU	zko	-hegalen azpian-
Babesa emanen diguzu -egunero-	SU	aren	-hitzez irribarrez jantzia-
-Zu beti izanen baitzara-	SU	a	

Juankar Mugartza

Etorri gaitun bai Kurtzebarri Eskolakoak... badakin gonbidapena jaso eta askotan egin izan dugun moduan hementxe gaitun, Idazle Eskolan, gure ekarpen txikiarekin.

Gazteak ere hemen ditun, hire ikasle ohiak, hik idatzitako hitzak irakurtzeko asmoz hori bai, hirekin hartutako ikuttu espezialakin.

Ez den erraza izan ez, honi...forma eta kolorea bilatzea baina hau ere, beste askotan bezalakoa izatea pentsatu dinagu; Badakin kolorea gorria forma berriz, kantua.

Hi ezagutzeko eta maitatzeko aukera izan dugunok bazekinagu zein gustokoa izan huen abestea: Lete, Laboa, Bedaxagar edo ...Sabina hamaika aldiz elkarrekin kantatu izan dinagu.

Hamaika aldiz ere kantatu izan dizkinagu Nafarroako eta Euskal Herriko historiaren pasadizoak.

Ze... hi ezagutzeko eta maitatzeko aukera izan dugunok ondo zekinagu bai, euskalzale amorratua izan hintzela.

Eta guk... eskolakide eta lagun izan garenok, gaurko hontarako, hire gustoko Fermin Valenciaren kantua eskaintzea pentsatu dinagu: Hik, heorrek, gure korreoetara bidalitako azkena hain zuzen ere.

Badakin hitzak ez ditun euskaraz baina mezua, ezin euskaldunagoa izan.

Hik esaten huen moduen : hau geure geurie don !

Hiretzat Karmele!

Rosa Urreta.





Enarari ene agurra

Enarek ez dute kontzientziarik. Ez jakiteagatik ez dakite ezta beren biziek bukaera badaukatela ere. Dena da, era berean, etenik gabeko jarraipena eta berehalakoa berentzat. Ez dute behar adinako zorrotasunik, egunerokotasunik, haraindikoaz, gerokoaz edo orozgaintasunaz pentsatzeko.

Enaren bizitza orainaldian kokatzen baita beti.

Gurean, berriz, gaurkoari muzin eginez lan egiten dugu geroa buuruan dugula...

Hor dago berehalakotasunaren eta orozgaintasunaren arteko diferentzia.

Izan ere, bizitzaren jarraipena nahita hausten denean, haraindia eta kontzientzia sortzen dira batera...

eta kontzientziarekin batera,
gainera,

gizakien artekoa nahiz geroko helburuen araberako mendekotasuna.

Arrazoa hortik dator. Lanak sortzen du arrazoiaren beharra...

Enaren antzerako berehalakotasunean gizakia munduarekiko hurkotasunean bizi zen, lagunartean.

Aitzitik, lana dela medio, aipatu mamitasun hura galdurik, arrotz bihurtzen gara gainerakoentzat eta baita geure buruentzat ere...

Bai. Orogaintasunak horixe bera baitakar berarekin batera. Kontzientziak ezberdintasunaz konturazten gaitu.

Enarek ezin dute hori sentitu eta guk ere ez enaren modura sentitzen garenean...

eta nik, Karmele, enara izan nahiko nuke orain...

Fito Rdz.

eguzkiak

Berotzen du lurra agertzen delarik
eta hozten haren eza dugularik.

Goizeko txoriaren kantuek alaitzen dizkidalarik
belarriak
lagunen erantzuna datorkit haizean,
txistuka batzutan
bestetan isil hotz.

Goizeko ihintzaz bustitzen zaizkidalarik
oinetakoak
blaitzen naiz gorputz-arimaz
familiako oroitzapen goxoezin.
Suaren gisa erretzen naiz harri hotzaren gainean
bihotzeko zauriek zizta egiten didatelarik
goizero bizirik nagoela jakinarazteko.

EGUZKIA.

Toki guztietan dago,
agertu edo ez agertu.
Bero edo hotz.
MAITASUNA.

Maitasunak dena hartzen du
amodioak sortu
eta ezetatik
olerkiak sortzen ditut.

Ainara Maia





garaiz izateko

Ezin jakin noiz arte izanen garen

Noiz arte izan gorputz honen
zentzu honen... jabe

Egun batean nekatuko gara, akitu, izateaz
eta desagertu nonbait, norabait

Baina orain gaude denbora honetan

garaiz arnas hartzeko
garaiz bizitzeko

Garaiz izateko!

Itziar Gomez



sentitzen dut

Sentitzen dut...

**begietatik,
belarrietatik,
sudurretik,
ahozulotik,
gorputz osoa biltzen nauen narru azaletik.**

Sentitzen dut... izan nintzela izan gabe...
aitak eta amak sortu arte.

Sentitzen dut... nola zeu ikusi
eta nagoen bizi.

Sentitzen zaitut... gertu zaudenean,
hezur haragizko bidean.

Sentitzen zaituztet... pozik zaudetenetan
edo ilunpean.

Sentitzen haut... bizi-bizirik heure berbetan,
idatzita utzi hitunan olerkietan.

Sentitzen dut... zuen hutsa, aurrekoen hutsa,
bakardadearen garratza.

Sentitzen dut... hitz hauen oihartzuna dela euskera,
gure arbasoen hizkera.

Sentitzen ditut... nire gabezia,
umearen irria.

Sentitzen dut... bizitza bizia !

Eta azken auzia ;

Gero... begiekin ikusten ez denean... sentitzen al da ?

Itziar Gomez

elurra udaberriari ate-joka

danba-danba
zuri ate-joka
ni hotz
haize berriak eskatuz
...isil-isilik
udaberriari ate-joka
elurra fresko
haizea gure alde jar dadin
azkenean!
xiri-miri
guri ate-joka
euria ari du nigan oraindik gazi
eta hargatik
negarrez ari da zerua gozo.
danba, isilik, xiri, miri
gazi eta gozo
hauxe da nere hitz mutua
maitasunari,
bizitzari.

Ainara Maia Urroz

Poesia itsasotzean...

Karmele, Lizardi etorri dun hitaz galdezka, eta gu ere hire zain geundela esan zionagu, ez hintzela aspaldi azaldu etxetik, eta belatzean eseri gaitun denok erlojuak janez...



Oka ibaiaren errekatxoetan poesiaz betetako paperezkoa itsasontzia uretaratu dinagu, eta mendian behera habiatu gaitun. Inguruko herriko kanpandorre batean, abeslariaren usoa eta poetaren enara dantzan ikusi ditugun arte, eta lasai geratu gaitun, espero genuen bezala zitara agertu haizelako.

Orain eguerdian mahaiaren bueltan jazarri gaitun. Ez din inork hitzik egiten. Goizeko eguzki izpiak jada ahuldu egin ditun. Baina bere ahuldadean leihoaren beira zeharkatzen dinate. Lapikoa sutan eta bazkaria irakiten. Lurrunak sukaldea betetzen din. Bazkaltzen hasterako euria hasiko din.

Orduan gogoratuko gaitun, herrixka hartako talaian egon ginenekoa. Aspaldiko istorioak gogoan eta bertan hilibiratutako ezezaguna hizketagai. Itsasadarrean itsasontziz barneratu ginenekoak.

Orain hik ekarritako ardo zaporea dastatzen dinagu, sutondoaren berotasunean, Oka ibaiertzaren aireak atean jorka ari delarik.

Baina artean, eta betirako, paperezko itsasontzia Urdaibaiko itsasertzetik itsasoratuko dun, denbora amaigabeen. Artista hilezkorra delako obrari eskerrak.

Eneko Aranburu

Karmele oroitzuz

Pertsona bat hiltzen denean ohikoa izaten da berari buruzko hitz ederrak esatea. Gaurko honetan Karmelen Igartuaren inguruan hitz egitea egokitu zait niri, eta lau hitzetan definituko dut: emakume konprometitua, koherentea eta sortzailea. Eta nago, ezaugarri horiek ardatz hartuta, aurrez aurre egin ziola bizitzari azken momentura arte; are gehiago, esango nuke une zailetan ere, sortzea eta idaztea ezinbestekoak bilakatu zitzaizkiola gertatzen ari zena ulertzeko, sufrimenduari zentzu bat emateko, hurbileko heriotzari beldurrik gabe begiratzeko. Guri ordea, maite dugun pertsona hori galtzean zera iruditu zaigu... heriotza goizegi etorri dela bere bila.

Hala ere, sinetsita nago pertsonak hiltzen direnean bere ideiak, bere obrak bizirik jarraitzen dutela, bilakera propioa garatuz. Eta Karmelerenak gudan daude: *Hitzak orbainetan*, *Denbora enararen hegaletan* eta argitaratu gabeko *Itsaso kontra batean*. Laburbilduz, poesian.

«Poesia baita laburpena. Bizitzarena», Karmelek ongi zekien bezala.

Carmen Valois
EIEko Batzar Nagusia
Agurain, 2011eko Martxoak 26

ez nauzu ezagutzen ama

"Ez nauzu ezagutzen" esaiozu amari
suak busti eta elurrak erretzen duenean,
gauetz argitu eta egunez iluntzean,
ez nauzu ezagutzen ama.

Amak hezitako arkumea
otso artean hazi da,
otsokume izan nahi duela
dio uluka,
harrapakariari ez zaio otordurik falta.

Esaiozu amari ez nauela ezagutzen
kilkerrari galdetzeko nor naizen
harri berberaz
estropezu egiten dudanean,
galdetzeko hiztegiari
hitza zein orrialdetan galdu dudan,
dorretxeko kanpaiei itaundu
maitasunean sinesten dudan.

Gaur ere entzun dut ama
arkumearen ulua zuri deika.



nire baitako biztanlea

Hileroko hormona festaz
esnatu naiz goizaldean,
ibuprofeno gosez.

Atzamarka eginez
bihurritu falopioren tronpak
eta moztu obarioak
mina odolezko urmaelean hondoratzeko
sakonean,
poesia jaiotzen den
negar eta algara nahastuen artean.

Ate joka nire baitan,
baina habitatzen nauzu
eta izugarri maite zaitut.

Haizea Caminos



galdera ikurrari begira egon naiz gaur goizean

Galdera ikurrari begira egon naiz gaur goizean erantzun baten bila.

Bide bat iruditu zait:
ziurtasun ezak okertzen duen bidea hasieran,
zalantzak eteten duena gero,
eta azkenik, amildegia honoa,
non erantzuna topatzeko ondoratu behar den.

Begira jarraitu dut...

Ernetutako emakumearen silueta ote?
Emakume haurduna bere sabel eta guzti?
Eta azpian kausa?
Hondoaren hasiera?

Begira jarraitu dut...

Izan daiteke su batetik ateratzen den kea,
haizeak zirimolatzten duena.

Blowing in the wind.

Galdera ikurrari begira egon naiz gaur goizean erantzun baten bila.

Eta begira jarraitu dezaket...

Baina galdera guztien ikurrari topatuko ote diot erantzunik?

Leire Zubeldia

amodioak eta ezak

LASKA JE LASKA
a jsem sama
s laskem
(=maitasuna maitasuna da
eta ni bakarrik nago
maitasunarekin)

Mundutik ezkutatu nahiko nuke,
lotan gelditu egun eta gau osoan,
bihotzetik ez sufritzeko
ez pentsatzeko,
ez sentitzeko,
hori da egia:
ez dut Euskal Herrira itzuli nahi
bihotzak gehiago sufrituko baitu,
eta ez dut hemen, Moravian, jada lekurik,
ezetza jaso baitu berriro ene bihotzak.

Laska je laska
eta bakarrik nago
maitasunarekin,
maitalerik gabe
maitatzeko norbait banaiz ere,
inoiz baino politago ikusten badut ere neure burua.

Laska je laska,
eta maitasuna ez da amodioa
maitale bat eta maitatu bat baino askoz gehiago delako
bakarrik nago.
Hiru gabe bi ez dagoen arren,
bakarrik nago
maitasunarekin.

Maitasuna maitasuna delako
urkiaren altzoan
amets egin nahiko nuke
martxoan.

Ainara Maia

Brno





Egiten gaituzte denborek,
egiten gaituzte lekuek.

Eta hemen
orain
garena gara, agian
edo garenetako bat baino ez

Uneek, tokiek ematen digute edertasuna
ez gure izateak
basoan galduta gose garenean
ez du deus balio urreak
eta liburutegiko kartelaren esanetan
bere apalean ez dagoena, liburu galdua da

Han, atzo
hor, bihar
edo gaur, hemen

Zein ote da nire lekua,
zein nire denbora?

Ione Gorostarzu

bizitza

Bizitzaren bideak
Gaur hemen, bihar han.
Atzo hemen zinen, gaur jada ez zaude,
lurraren indarrak xurgatu bazintu bezala.

Gogorra da hutsunea.
Hainbeste denbora elkarrekin,
hainbeste algara, hainbeste negar,
hainbeste haserre eta muxu.

Non geratu da guzti hori?
Irakiten duen ura bezala lurrundu da,
agur esan gabe desagertu da,
itsasoko olatuek eraman izan balute bezala.

Bitartean gu hemen gara,
itsasbazterrean, olatuek berririk noiz ekarriko zain.

Bizitzaren bideak
Gaur hemen, bihar han.
Atzo hemen zinen, gaur jada ez zaude,
lurraren indarrak xurgatu bazintu bezala.

Gogorra da hutsunea.
Hainbeste denbora elkarrekin,
hainbeste algara, hainbeste negar,
hainbeste haserre eta muxu.

Non geratu da guzti hori?
Irakiten duen ura bezala lurrundu da,
agur esan gabe desagertu da,
itsasoko olatuek eraman izan balute bezala.

Bitartean gu hemen gara,
itsasbazterrean, olatuek berririk noiz ekarriko zain.

Maddi San Miguel Alkorta

galderak

galdera asko otu zaizkit eskuak batu eta
asfaltoa gurutzatzera abiatu garen momentuan
maite ote nauzun edota maitasuna hau ote den beti
eskutik helduta ildoak zeharkatzea baino zerbait gehiago den

eskutik heltzeko noiz ote den laster ere
galdetu diot neure buruari
ibilbidea egiteko noiz ote den berandu
nora gatozen eta norantz doan sendo harri bidea
bizitza aurrera egitea besterik ba ote den
jakin mina sortu zait
zer dagoen han – eta zer ez -
urratsak amaitzen diren kilometroan
eskuak batuta eramango ote nauzun inoiz
lurraren mutur azkeneraino

erantzun gabeko galdera asko bururatu zaizkit
galdetu ezineko erantzun biluziren bat ere bai eta
bat-batean uzkurto egin zara
isil-isilik ihes egin duzu
errepidea lasterka zeharkatzen duten trikuak bezala

“Esnatu da trikuak habi hosto lehorrez egindakoa,
eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora;
gutxi gora behera, aditzak barne, hogeita zazpi hitz.”
BERNARDO ATXAGA



Pla dels Angels – Ciutat Vella

Darrere les paraules només et tinc a tu.
JOAN MARGARIT.

Kaleei inoiz aingeru izenak jarri badizkiegu ere
akastun gizakiak gara;
Iptusa-n kafe bat hartzen ari nintzela ohartu naiz,
outlet gizakiak garela zu eta biok.

Zaborrak pilotzen dira kale kantoietan
oroitzapenak, kale izenak eta obretako aldarmioak nahasian;
paradisutik urrun dira auzo honetako kaleak eta
infernua neu naiz; infernua zeu zara.

Bitartean nahiago hitzak miazkatzen jardutea katuak bezala
edota gurutzegramak marrazten kafearen hondarretan
Rabal-eko eraikin eraitsien artean
ozta-ozta zutik dirauen bainugela zatiari begira
okurritu zait
sentipen mingots hau dela
behinola elkarrekin altxa genituen hiri haien ondarea
espazio arrunta
animalia domestikoa
nekez baina azkenean konprenitu dut
inoiz kaleei aingeru izenak jarri badizkiegu ere
akastun gizakiak garela zu eta biok. Eta besteak.

ukituta

Irratiko informatiboarentzat beste zenbaki bat besterik ez; segituan kirolak.

Hurkoentzat berriz, seinalatutako eguna:
samina
ezintasuna
etsipena.

Zoriona, Zorigaitza... patuaren joko apetatsua

Gorde-gordeketan zugandik ihes egin nahian,
nahitaez, zuganantz noa.

abiatu

nola iritsi zugana
bidean hamaika pusketan hautsi gabe

hurbildu noraino


kristalezko ametsak
ederrak bezain delikatuak badira

iraun zure ondoan
noiz arte

(I)

Ez dago uharte segururik
altxorrek gordetzeko
askatasuna ez baita sartzen
egurrezko kutxa batean

Ron, Ron; Ron,
Ron botila emon!



gela ilun hauetan

Gela ilun hauetan
bakardadearen ostatuan
argiaren aztarnek
kolorez
suspertzen dute nire gogoa

orduan,
libre bezain itsu sentitzen naiz
ondo baitakit
jakin
argia arimarik gabeko
ilusioa besterik ez dela.

Infernuko arotzak
ez du bere lana bukatu
hezurrezko arraunak
ke dira bilakatu!
JON GEREDIAGA



OB-SESIOAK

(I)

Behin eta berriro
suak eramaten nau zure altzora.

Jaio eguneko su epela gogoan
damuaren atean jotzen dut
behin eta berriro.

Baina atea zabaldu orduko
behin eta berriro
haize zurrumbilo bortitz batek biziagotzen du
daramadan sua
eta nire sentimenduak erabat kiskalduta,
hurrengoan ez, hurrengoan ez!
eskaileretatik behera abiatzen naiz madarikazio eta birao

(II)

Gaueko ezusteko bisitaldiak esnatu nau.

Gaur ere
nire aspaldiko mamuak gautxori dabilta nonbait
gauaren konplizitatea lagun
nire ametsekin nahastera etorri baitira.

Bat batean ohetik jaiki
eta gomutaren hondakinak uxatu nahian
idazteari ekin diot.

Leihoan oraindik gaua da.

Ezpainak zure izenarekin igurtzi ditut
eta hats epel eta gozo batekin
ametsak
zure urrutiko oherantz bueltan bidali ditut



Mikel Agirregomezkorta



UNED-Bergara

UNED

BERGARA



GRADUAK

Graduondokoak
Arautu gabeko ikastaroak
Hizkuntzak
Berezko ikastaroak
Sarrerako ikastaroak

matrikula >>> irailaren 15etik urriaren 20ra



Informazioa:

UNED. Martin Agirre Pl., 4.
20570 Bergara
Tel. 943 76 90 33
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

Gasolindegian

UGARTE, Yurre. Alberdania, 2010.

Liburuekiko harremanak oso bitxiak izan daitezke. Gerta daiteke, amodiozko istorioetan bezala, liluratuta geratzea purpurinazko azaleko itxuragatik eta liburura erosi, baina 10. orrialdera iristerako, konturatzea oro ez dela urre eta liburua eta irakurlearen arteko batbateko maitemina xarma hori galduta, banatzea. Beste batzuetan, zorionez, amodio-desamodio prozesu horretan, ibilbidea erabat alderantzizkoa da.

Egiari zor, Yurre Ugartek idatzi duen lehenengo liburuari buruz, hasiera batean, ez azalak, ezta izenburuak ere, ez ninduten gehiegi seduzitu: "Gasolindegian" izenburua duen liburuaren aurrealdean min koloreko zeru eta basamortu moduko paisai erdian, gasolina hornigailu gorri bat sortzen da. Hornigailu hau nahiko berezia da, markagailuan litroak eta euroak azaldu beharrean, buru eta garun baten irudiak agertzen baitzaizkigu.


Halere, liburua irakurri ahala, han suertatzen diren istorio eta pertsonaiek, gero eta gehiago harrapatu naute, azkenean, maitemintzearen kilimak sortarazi arte.

Izan ere, zaila da gero, jaio berriari izena jartzea!

Are zailagoa, jaio berria haurra bada, esango luke idazleak: "...haurrari izen hori jartzen badiote, kosta egingo zaio bizitzan bere lekua aurkitzen, zama bat besterik ez da izango, izen hori..."

Eta hori da, hain zuzen, liburuaren protagonistetako bati, Ruthi, bigarren narrazioan gertatzen zaiona: izenak eraginda, zaila egiten zaio bizitzan bere lekua aurkitzea. Bilaketa horretan, jauzi egingo du haurtzarora, handik bueltan, katarsi baten bidez, aro hartako mamuak uxatu eta aurrera jarraitzeko; "POSTERTERAPIA"

Baina bizitzan norbere lekua aurkitzea, finean bizitzea, gehienetan ez da lan makala izaten. Ibilbide horretan errealitatea bezain garrantzitsua dira ametsak, nahiz eta askotan biak bat ez etorri. Egoera horretan mugitzen dira liburuko pertsonaiak.



Horietako bat, kontakizuneko pertsonaia nagusia dena, Rakel, errealitate-ametsaren soka gainean ibiliko da, liburuan zehar, oreka bila. Arte Ederretan lizentziatua eta gasolindegi bateko langilea. Rakelen ametsak talka egingo dute errealitatearekin, baina biak beharoko ditu bizitzeko. Ezingo ditu bere ametsak erabat baztertu eta askotan horiek baliatuko ditu errealitatetik ihes egiteko.

Baina gasolindegi bat ez da tokirik aproposena imajinazioaren sua pizteko. Toki labainkor hau, oso toki arriskutsu bilaka daiteke. Batez ere, inguruan begietan sua daraman konkordun itxurako pertsonaia bat agertzen bada.

Bukatzeko, esango nuke ez dela misteriozko liburu bat, baina bai liburuak gordetzen dituela misterio batzuk: existitzen al da benetan Veronika? Zer gertatzen da Rakelekin bukaeran? Zein da benetan liburua ireki eta pirueta batez liburua ixten duen pertsonaia konkorduna?

Nik badauzkat nire hipotesiak, baina orain ez da momentua esateko. Orain zure txanda baita, irakurle!

Mikel Agirregomezkorta

Hatsaren kulunka

MÜLLER, Herta. Elkar, 2010. Itzul.: Ibon Uribarri

Holokaustoarena da literatura eta zinean hamaika aldiz jorratu den gaia. Istorio honetan, aldiz, hain ezaguna ez den Holokaustoaren beste ondorio bat kontatzen da: zigorraren historiaren atal bat. Nazi eta judutarren ordezt, sobietar eta erumaniarrak dira kontzentrazio-esparruen ordeztoko lan-esparruetan. Ezezagunagoak ditugun biktima horiei sufrimendua adierazteko ahotsa eman die idazleak. Bizirauteko eguneroko borroka latzari eta goseari eusten dioten presoak soilik dira idazlumaren protagonistak. Zenbat modutan deskriba genezake gosea goserik zer den ez dakigunok?

Hatsaren kulunka, 2009an Literatura Nobel Saria eman zioten Herta Müllerrek (Nytzkydorf, Errumania. 1953) idatzi duen azkeneko eleberria da, euskaraz aurki dezakegun bere lan bakarra.

Müllerrek eleberri honetan Bigarren Mundu Gerra ondoren nazismoarekiko zer jarrera hartu zuten kontutan hartu gabe Sobiet Batasunera deportatu erumaniarrek sufritu zutena salatzen du. Bere amak ere bost urte eman zituen haietako lan esparru batean. *"Gai honi buruz idatzi nahi izan nuen beti...Lekukorik gabe geldituko ote nintzen beldur, Oskar Pastiorrekin (idazle alemaniar errumaniarra, Herta bera bezalaxe) hizketan hasi nintzen. Ucraniara joan ginen, lan esparrua egon zen tokira"*.

Oskar Pastiorrekin eginiko lanarekin eta jasotako testigantza guztiekin osatu zuten Müllerrek eleberri hau.

"Hatsaren kulunka" sentsazio nobela, muturreko bizi baldintzetan gizakiak aurrera ekiteko ateratzen duen indarra eta kemena erakusten digun nobela da: *"Hil zoriko nekea, barrenak hozkatzen dituen hotz izugarria, izu usain zorrotz, denbora ostua. Goseak itsututa, herri-minak gaixotuta, mespretxura ohituta, denboratik at eta geure baitatik at eta munduaz etsita, baita mundua gutaz ere"* protagonistak une desberdinetan dion bezala.



Eleberria 1945ean, Leopold Auberg, hamazazpi urteko gaztea deportatzeko bila datozkionean hasten da. Zerrendan zegoela jakitun, ama eta amonarekin gramofono kutxa izango den maleta egiten ari dela agertuko dira soldaduak. Amonaren hitzak izango dira "gulag"en bizirautean lagunduko diotenak: "BADA-KIT ITZULIKO ZARELA" eta hitz haiexek bihurtu ziren handik urte batzuetara musuzapi: *"ez naiz lotsatzen esaten dudanean musuzapia izan zela esparruan nitaz arduratu zen gizaki bakarra"*.

Leopold protagonistarekin batera esparruan daude beste gizon-emakume batzuk. Bakoitzak badu bere historia, injustizia eta biziraupenarekin: zerrendaren arabera bat falta zelako atxilotu zuten neska gaztea, Zonzon-Kati neska atzeratua, David Lommer judutarra, elurra salatu zuen neska, porlanean ito zen Irma Pfeifer, bizargina... *"ez ginen garen bezalakoak gu denok"* eta *"Gose-Aingerua"*, gosearen metafora pertsonifikatua.

Gosearen deskripzioa eta trataera da eleberrian zehar indar handienetakoa hartzen duen gaia: *"azal eta hezuraren garaia, gose-hitzak mapa bat dira, nire gosea eta ni, hezur-gizontxo eta hezur-*

emakume sexugabeak ginen, gosea beti dago hor...Ez dago hitz egokirik gosearen sufrimendua deskribatzeko".

Hizkuntza lirikoa darabil Herta Müllerrek, jaso bezain hunkigarria, ulergarria bezain sintetikoa, baina niretzat liburu honetan interesgarria pertsonaien ikuspegiaren nagusitasuna da.

Hori dela eta, agintariek eta soldaduek ez dute batere protagonismorik eleberri honetan eta horregatik ez dugu aurkituko ohiko krudelkeria eszenarik, deportatuak dira inporta dutenak, haien eguneroko kontu txikiak dira benetan hunkigarriak eta horregatik hartzen dute objektuek hainbesteko protagonismoa: musuzapia, kuku-erlojua, bihotz-pala, ikatza, arropa, burko azala...

Izaskun Etxeberria
Zufiaurre

Giza izaeraren zentzugabekeria

GUILAN O. *HERIO HEROI / ARRA. ARRAROA.* Artezblai, 2010

1961. urtean, Martin Esslinek *Absurduaren Antzerkia* izeneko ikerketa liburua argitaratu zuen; orduetik hona, ikerlanari izenburua ematen dion terminoak munduari bira eman, eta XX. mendeko arte eszenikoen alor garrantzitsua bezain zabala izendatzeko balio izan du. Alabaina, Esslinen testuak zaku berean sartzen zituen antzezlan nahiz dramaturgo zeharo ezberdinak: Eugène Ionesco, Samuel Beckett, Arthur Adamov edota Harold Pinter, irakurlearengan garaiko antzerkiarekiko pertzepzio desitxuratua eskainiz.

Baina, Esslinen helburua ez zen izan norabide bakarreko mugimendu artistiko sendoa azalaraztea; bai, ordea, garai horretan agertzen ari ziren adierazpen ezberdinak sailkatzeko modu teorikoa sortzea. Terminoa, zoritxarrez, errealtate konkretu bati buruz hitz egiteko erabili izan da urteetan zehar, askotariko manifestazio artistikoen zigilu zehatza bihurtuz, bertan errealtasimotik aldentzen zen edozein antzezlan barnean sartuz. Esslinen ikerlanetik mende erdia pasa dela presente izan arren, ezin uka dezakegu, esku artean dugun Oier Guillan euskal idazlearen *Herio heroi* testu dramatikoak (Kafe Bilbao saria 2009), zaku zabal bezain heterogeneo horretan koka daitekeela.

Herio heroi-n, etorkizuneko mundu bitxia agertzen zaigu, bertan hilotzek usteltzeari utzi diote eta familia bakoitzak senide hildakoen gorpuak bere kargu hartu behar ditu, etxean gordez betiko. Gero eta hildako gehiago dagoenez, mundua erabat aldatu da, gobernuak konponduz eta debekatuz, heriotza bortitzak sor ditzaketen arazo guztiak (gerrak, elkarriketa gatazkatsuak, borrokak...). Antzezlanean, Gelnst eta Zprist anaien bizitza lasaia hankaz gora jarriko da, gobernuko funtzionario bat etxean agertzen zaien egunean: funtzionarioak gure protagonistei aspaldi abandonatu zituen aitaren hilotza ekartzen die, momentu horretatik aurrera etxean zain dezaten, legeak agindu bezala. Baina non sartu etxean hilotza? Eta nola jakin ezezagun hori



benetan aita duten? Eta legea ez betetzearabakitzten badute, zer ondorio ekarriko lieke? Egoera honek gai ezberdinen inguruan hausnartzeko aukera ematen du: demokrazia, gizakion askatasuna, familia eta erlazio pertsonalak...

Gizarteko gai mamitsuak lantzeko dramatismoaren bidea hartu beharrez, Guillanek umorez eta ironiaz josi du antzezlan, baina txiste errazak erabili ordez, paradoxak eta hitz jolasak sortuz harilkatzen du istorioa. Pertsonaia anbiguoak aukeratu ditu, inuzentek eta ia izaera propiorik gabekoak (haien izenek ere ez dute esanahirik); serratzen zaizkien egoera xelebreetan bere ikuspuntua are xelebreagoa izan dadin. Harriturik geratzen dira bere inguruari begira, eta egoeren aurrean matxinatzen saiatzen diren arren, ez dakite nola edota ez dute indarrik matxinadan aurrera egiteko. Eta matxinada egitea lortzen denean, zentzurik gabekoa eta alferrikakoa da. Gaietan, estrukturan edota elkarriketetan, Beckett-en hainbat testu ekartzen du gogora; hala ere, hizkuntzarekin egiten dituen jolasak eta errepikapenak gertuago daude Ionescoren *La Cantatrice Chauve* antzezlanetik.

Artezblai argitaletxeak Oier Guillan idazleari eskainitako alean, arestian aztertutako antzezlanaz gain, beste testu bat jasotzen du: Arra. Arraroa. izenekoa, hain zuzen ere. Oier Guillan orain arte poeta gisa ezagunagoa izan da; azken testu honen helburua bi generoak (poesia eta teatroa) uztartzean datza. Bertan, poesiaren estrukturatik

hurpil dagoen bakarriketa eder baten bidez, autoreak gizonezkoak gaurko gizartean duen rolaren inguruan hausnartzen du: gizona galduta dago orain arte inposatzen zitzaizkion estereotipoak desagertzen ari direlako, baina ez daki oraindik nola jantzi dagokion rol berri hori. Estereotipo horietatik aldentzen den gizona eta gainera lotsarik sentitzen ez duena adierazteko, arra arraroa da.

Liburua osatzen duten bi testuak oso ezberdinak izan arren, badute komunean zenbait ezaugarri: esperimentazioa eta hizkuntza berrien bilaketa euskaraz egitea da, agian, ekarpenik baliotsuena. Nahiz eta sortzaile interesgarriak egon gure artean, antzerkiaren gainbehera nabarmena izan da azken urteotan bai produkzioetan bai kontratazioan; hori dela eta, eskertzekoak dira arriskuak hartzen dituzten apustuak gure inguruan jorratzea. Ez dakigu Guillanen obrak zein norabide hartuko duen hemendik aurrera, hala ere, aberatsa eta emankorra izatea opatzeaz gain, Esslinek zioen bezala "giza izaeraren zentzugabekeria" ikertzen jarraitzea espero dugu.

Xabier López Askasibar

2009-10 Ikasturteko bekak

- Idazle Eskolak ikasleen sormen-lan luzeak saritzeko eskaintzen duen bekaren azken edizioan ondokoak izan ziren irabazleak: dibulgazioan **Izaskun Etxeberriak** aurkeztutako **Herri baten lekuko isila** lanak eskuratu zuen beka; narrazioan **Jose Luis Larrañagaren Bihotz-ikarak** izan zen irabazlea; eta azkenik, **Yoseba Peñaren Uberak uretan** aukeratu zuen epaimahaiak poesia-lanik onena bezala. 2010-11ean, lehenengo aldiz eskainiko da **"KARMELEIGARTUA BENGEOA BEKA"**, Idazle Eskolako ikasle eta eragile izandakoaren omenez.



iraila

- Urtero bezala, **Iparraldeko Hatsa Elkartek antolatutako egun-pasa poetikoa** egin zen **hilarren 18an**, eta urtero bezala, bertan izan zen Idazle Eskola ere. Azken edizio hau ordea berezia izan zen, Karmele Igartua Idazle Eskolako kidea omentzeko baliatu baitzuten eguna. Horrela, "Maite ditugun olerkariak, Karmele Igartua bihotzean" lemapean egitarau betea osatu zuten: Senperen elkartu ziren parte hartzaile guztiak. Bertatik, Zugarramurdi aldera jo eta Ibanetakoa mairu-baratzan omenaldi xumea egin zioten lagun zendu berriari. Ondoren, Larraldea etxera itzuli eta bazkari legea egin zuten. Bazkalostean poesia irakurraldia eskaini zuten Idazle Eskolako kideek. Karmele Igartuaren poemak hartu zituzten oinarri.

- **Irailaren 13an** Aspaldiku elkarteko lagunek ere goratarre egin nahi izan zioten Karmele Igartua Bengoari. Hala, **Nafarroako V. Poesia Biltzarrean "Aretxabaletako enara"** izan zen ardatza Joxemiel Bibador poetarekin batera. Nafarroako elkartearen keinua eskertzeko Idazle Eskolako hainbat lagun hurbildu ziren Burlatara, eta bertako zuzendaria, Tere Irastorza, izan zen poeta gonbidatua. Berak eskaini zuen irekiera hitzaldia.

- Hondarribiako Udalak urtero antolatzen duen **Satarka Poesia Lehiaketan Ekhiñe Egituren** Idazle Eskolako ikaslearen lanak 1. saria eraman zuten.

urria

- Urriko zubian hainbat euskaldun elkartu ziren **Nafarroako Urepel herrian** bertako seme Fernando Aire **"Xalbador" gogoratzeko**. Bertako antolatzaileen eskariz, Idazle Eskolako lagun talde batek **ilunabar literarioa** eskaini zuen herriko eskolako aretoan. Xalbador bertsolari eta poetaren izaeraren alderdiak oinarritzat hartuta euren sormen-lanak irakurri zituzten. Jarraian afari batekin jarraitu zuen festak. Afalostean berriz ez zen kantaldi eta dantzaldirik faltatu. Hurrengo goizean berriz, nagiak kendu eta mendi ibilaldia egin zen Xalbadorren artzain txabola helmuga hartuta.

azaroa

- Euskal Herriko txoko ezberdinetan gogoan hartu bazuten ere, Idazle Eskolak Bergarako UNEDen bertan eskaini nahi izan zion Karmele Igartua adiskideari merezitako omenaldia. **Azaroaren 25ean**, Aretxabaletako enararen sendia, lagunak, lankideak eta bere obra estimatzen zuten irakurle eta idazleak bildu ziren UNEDeko areto nagusian. Guztien artean osatu zuten **"Karmele Igartua Bengoa, gogoan"** ekitaldia. Naturako lau elementuak (lurra, ura, sua, haizea) oinarri hartuta, Karmeleren poemak eta narrazioak irakurri zituzten. Irakurraldiaz gainera, biografia dramatizatuak, kantuek, txalapartak, zintzariak, irrintziek eta batez ere, emozioek osatu zuten ekitaldi umila baina duina.

abendua

-lazko azken hilabetea oparoa izan zen Idazle Eskolarentzat eta batik-bat bertako zenbait ikaslerentzat. Batetik, **Inaxio Lopez Aranak Zumaiako Julene Azpeitia ipuin lehiaketako 2. saria** eskuratu zuen "Atxitxaren (H)ilobia lanarekin. Era berean, **Carmen Valloisen** *Haizearen alabak* lana Lizarrako **Maria de Maeztu narratiba lehiaketan saritu** zuten.

- **Hilaren 18an**, lehenengo aldiz bertaratu zen Idazle Eskola Nafarroako Sakanara. **Altsasuko kultur etxean** eskaini zuen **Ilunabar Literarioa**. Horretarako, bertako irakurle-taldearen laguntza izan zuen: poesia entzun, ikusi, usaindu eta ukitu zitekeen saioa izan zen, aipatutako zentzumenen inguruan ardaztu baitzen ekitaldia. Dastamenaren zentzua saioaren ostean landu zuten, Lagun Onak elkarteak eskainitako afari ederraren bidez.



- **Xabier Lopez** ikasleak **Nafarroako Antzerki Eskolako 19. Haurrentzako Testu Leihaketa** irabazi zuen gaztelaniazko testuen atalean. Honela, "*Billy, el niño que perdió una estrella*" izeneko

obra saritua antzeztu zuten Nafarroako Antzerki Eskolako azkeneko ikasurteko ikasleek. Emanaldiak Gabonetan eskani ziren arratsaldero-arratsaldero.

urtarrila

- **Café Bilbao Teatro laburreko** lehiaketan Idazle Eskolako bi kideren lanek sariak jaso zituzten: **Xabier Lopez ikasleak** "Piztu gabeko zigarroak" obrarekin irabazi zuen eta **Pako Aristik**, Idazle Eskolako **irakasleak**, "Neuronaren heriotza" lanari esker eskuratu zuen saria.

martxoa

- Ostegun gizenez, **martxoaren 3an** izan zen jada tradizio bilakatu den **Elgoibarko III. Ilunabar Literarioa**. Gipuzkoako herriko kultur etxearen sotoan irakurri zituzten Idazle Eskolako kideek eta zenbait idazle elgoibartarrekeuren sormen-lanak. "Ni naiz" gaiaren inguruan aritu ziren, bide batez Xabier Lete poeta gogoratu zutelarik.

- Martxoaren 8rako Euskal Plen Klubak atera zuen **Emakume Idazleak kartelean 87** euskal emakume idazleren argazkiak ageri ziren. Horietatik **7 Idazle Eskolan ikasiak**, 3 bertako irakasle izanak edo direnak, eta beste 6 baziren Idazleak Irakurle Mintegietan parte hartuak. Hala ere, begira jarri ezker, falta denik ere aurkituko genuke,

apirila

- Euskal Herriko hainbat herri eta hirietara iritsi dira Idazle Eskolaren ilunabar literarioak. **Apirilaren 7an Donostia aboratu zuten** lehenengo aldiz. Udal Liburutegi Zaharreko sotoan "Hiriak" gaitzak hartuta egin zuten saioa.

- Hilaren 3an, Hatsa elkarteak "**Hatsaren poesia 2011**" liburuaren aurkezpena egin zuen Senpereko Larraldea etxean. Poesia bilduma berria aitzakiatzat hartuta egun osoko egitaraua osatu zuten aurtengoan ere: ekintzen artean izan ziren idazleen olerki irakurketa eta Koldo Zubeldiak eskainitako "Nire olerki mingotsak" argazki-olerki ikuaskizuna.

maiatza

• **Markos Unzetak** *Mississippi* diska argitaratu du. Bere hirugarren lana du. Markos Unzetaren lana aurki daiteke *Luma Berrien Eleak* aldizkarian, 3. eta 4. aleetan.

ekaineko Ilunabarrak

• **Ekainaren 17an Aretxabaletan** antolatua den ILUNABAR LITERARIOAn Karmele Igartuaren *Itsaso Kontra bat* eta Tere Irastortzaren *Eta orain badakit* liburuen irakurketa burutuko da. Bertan izango dira, gainera, Izaskun Etxeberriak Karmeleren liburua irakurriz egindako argazkiak eta Aitor Furundarenak, *Eta orain badakit* liburuarentzat, Iñaki Telleria eta Grikoitz Mendizabal txistulariarekin sor-

tutako musika. Irakurtzen Itziar Gomez eta Tere Irastortza izango dira

• **Ekainaren 30ean Zumarragan** egingo dugu aldizkariaren aurkezpena, festa-bezperari liburu-festa atxikiz. Urtero bezala, bertan aurkeztuko dugu *Luma Berrien Eleak* aldizkariaren aurtengo alea.



Europako Idazketa Sortzaileko Elkartekide egin da Bergarako IDAZLE ESKOLA

2011n Torinon ospatu du EACWP (*European Association of Creative Writing Programmes*) elkarteak bere sinposioa. Bertan, idazketa sortzailea bultzatzen duten Europako hainbat herrialdetako Idazle Eskolak hartu dute parte. Elkarre honetan parte hartzeko, lehenik kide diren beste bi elkarte bultzatu behar dute bazkidetza. Kasu honetan, Finlandiako *Oriveden Ospito* Eskolak eta Parisko *Aleph-Ecriture* Eskolak sostengatu dute Bergarako Idazle Eskola.

Elkarre honetan parte hartzeko bost lan talde dira, eta Bergarako Idazle Eskolak, batez ere, idazketaren pedagogian zortzi urte hauetan egindako lana eta esperientzia partekatuko du, eta baita *Idazten Erakutsi* eta *Lerro Artera* programen ondorioak ere. Beste alde batetik, ikasleen lanak zabaltzeko baliabideen eta baliabide telematikoaren azterketa ere interesgarri jotzen du. Ikasleek eta irakasleek gainera, parte hartu ahal izango dute, nazio-arteko hainbat mintegietan, hara nola uztailan ospatuko den Poesiari buruzko 2. ikastaldian "*Fundamentals of Poetry*".



tentazioa eztenean

Euskarazko irakurleei eztena sartu nahi diegu; apur bat zirikatu, eta liburuetatik kanpo ere irakurtzeko beste moduak badaudela erakutsi. Fantasia eta beldurrezko idazkiak aitzakia hartuz irakurleak tentatu nahi ditugu gure poema eta narrazioekin.

Horregatik dena eskura duzu EZTENAn. Ordenagailura jaitsi nahi baduzu, PDF bertsioan inprimatu nahiago baduzu zure "E-book"ean irakurtzea gustuko baduzu... Zure esku dago.


Baina ez hori bakarrik. Idatzi ere idatz dezakezu. Ez duzu intelektual itxura izan behar, ezta misterioitsua ere, zuk zeuk idatz dezakezu hala nahi duzulako. Eta internetek honetarako aukera berria ematen digu: edonork argitara dezake edonon. Irakurri, idatzi... nahi duzuna. Aurrera.

Erlea eztena sartzeko beldur ote da? Ba ote daki eztena sartu ondoren zer gertatuko zaion? Horrek bihurtzen du erlea heroi. Eta horixe nahi dugu guk ere: euskal literaturari beste bultzadatxo bat eman eta, bide batez, lotsatuta dagoen idazle orori, bere testuak kaleratzeko aukera eman. Agian ez zara heroi bihurtuko. Agian bai. Ez al gara guztiok heroi gure fantasietan?


Kontakizun oro delako dena eta "eztena"

www.eztena.org


Asier Mendoza




Eusko Ikaskuntzaren
Asmoz Fundazioa




Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



UNED



upna

**ONLINE IKASTAROAK
ETA ERDI-PRESENTZIALAK**

- Idazle Eskola
- Haurrak eta musika: ikasten eta irakasten
- Eusko Ikasgaiak
- Hizkuntza Plangintza
- GNU/Linux - Software Librea
- Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra

Tlf: 943 21 23 69

<http://www.asmoz.org>



**ADMINISTRAZIOKO
TESTUGINTZAN
SAKONTZEKO IKASTAROA**
[Europako Erreferentziako Ikasgaiak Bideratutako C1 mailara egokitua]

Liburu hauek
hemen
dituzu salgai:



Administrazioa euskaraz aldizkaria
Gramatika artikuluen bilduma eta ariketak



Unibertsitateko etorbidea 2/g
20560 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es



AMAIA PORTUGAL

Donostiarra batzuetan, egiatarra bestetzuetan. 1984an jaioa. Kazetaria naiz bokazioz, ikasketaz eta, zorionez-edo, ofizioz. Hala ere, behin edo behin galdetu izan diot nire buruari ea jendea (des)informatu nahiak baino gehiago, ez oten nauen idazteko grinakeraman prentsan lan egitera. Eta horri erantzuten ez dakit.



EKHIÑE EGIGUREN

Donostia.
Bizioa: irakurtzea.
Ilusioa: idaztea.
Ofizioa: arkitektoa.
Afizioa: arkitektura eta literatura.



URTZI LEONET

Santa Cruz (Astigarraga, 1982).
Txikitatik largiak erakarri nau, baina berarekin hitz egin ezin dudanez, bihotzarekin idazten diot, noizbait nire hitzak iritsiko zaizkion itxaropenez.



HAIZEA CAMINOS

Ipar haizea herritar hiritartu irri jagole.

Haginlariak poesia bidaie bide sentikor.



LIDE IPARRAGIRRE

Donostian jaioa 1988. urtean. Itzulpengintza ikasketak egin nituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta astero bi autobus-bidaie egin behar nituen, irakurzaletasuna areagotu egin zitzaidan. Liburuen menpe geratu nintzen, nire panazea balira bezala. Hala ere, banekien irakurri eta idaztearen artean alde handia zegoela baina ikasturte honetan ikasi dut garrantzitsuena idazten hastea dela, zer esatekorik izan ez arren.



TERE IRASTORTZA

(Zaldibia, 1961). BEASINGO IKAS-TOLAKO zuzendaria. Bergarako IDAZLE ESKOLAKO zuzendaria, irakaslea eta batez ere, bertako lagunen irakurle saiataua, aspaldian. Batez ere poesia argitaratu du eta baita zutabeak eta saiakera ere.



IZASKUN ETXEBERRIA ZUFIAURRE

Literaturak seduziturik naukan Idazle Eskolako bigarren mailako ikaslea.



CARMEN VALOIS

53 urte. Atzean, iragana. Aurrean, geroa. Tartean, oraina: iragan eta geroaren zubi hauskorra.



IONE GOROSTARZU

Berastegi jaio zen duela hogeita zazpi urte. Historian Lizentziatua da, eta lanbidez irakaslea.



IRENE GIL LEGARRA

1965ean jaioa, txikitari donostiartutako tolosarra naiz. OHOKO irakasle eta Filologia Alemana ikasketak egin, lanbidez administrari Osakidetzan. Idazle Eskolan izena eman ez eman ibili nin-

tzen; lehenengo urte honetako esperientzia... hurrengoan jarraitzeko zalantzarik ez.



IÑAKI ZUBELDIA

Iñaki Zubeldia Ikaztegieta jaio zen eta bertan bizi da. Maisua eta Pedagogian Lizentziatua, testugintzan eta haur literaturan aditua da, bi alorretan egile eta editore lanak egin dituelarik. Hizkuntza Arloko hainbat libururen sorkuntzan parte hartu du: Zipristin eta Hizkuntza, Sirimiri, Txor Txor, Euskara eta Literatura...

Umeentzat eta gazteentzat idatzi dituen obren artean hauek aipa daitezke: *Euskaldun bat Marten*, *Pako belearenak*, *Mirari hegalaria*, *Josu Azalaren abenturak*, *Nire aita ezin izan nuen salbatu*, *Iratxoeren mundu zoragarria*, *Olentzero larri*, *Tximu bat klinikan*, *Katalina kontalari*, *Ama!*

Bere obraren barruan aurki daitezkeen ezaugarri nagusienak hauek dira: fantasia, abentura, umorea, ironia, adiskidetasuna eta baikortasuna. "Baita ere esan behar da autore honek ekarri zuela zientzia fikzioa Euskal Herriko gazte literaturara Euskaldun bat Marten bere liburuarekin" (Seve Calleja).



IZASKUN ETXEBESTE

Anoetakoa naiz. Herri hartan, bizipen, emozio eta bizitzek dakarren zati desberdinak estreinatuta eta dastatu nituen. Albizturko eta Aizarnako eskoletan lan egiten dut, eskola txikiak handiak baino gehiago gustatzen zaizkidalako. IDAZLE ESKOLAKO 1. mailako ikaslea naiz.



ASIER MENDOZA

Batzutan Asier izenez, bestetan Ezekielez sinatzen dut, Zarauzko itsasertzetik datorren ipar haizearen arabera.

Beste gu nobelarekin irabazi nuen Mikel Zarate 10. Haur literatur saria eta Elkarren argitaratua dut. www.eztena.com web orrian ere sartzen dut eztena.



ISABEL MARTIN

Txikitan galdetzen ziotenean ea nagusitan zer izan gura zuen, beiti "artzaina" erantzuten zuen.

Bizitzak aurrera egin du, urteak joan, urtean etorri, eta asmoa bete egin du. Horrekin lotuta, ondo badaki zer idatzi lapidarioan: "Pozpozik: bizitzan hartutako erabaki guztiak neureak izan direlako"

IDAZLEESKOLAko 1.mailako ikaslea da

ODEI ARREGI IZAGIRRE

IDAZLEESKOLAko 1.mailako ikaslea.



MAITANE LEGARRETA ETXEZARRETA

Donostian hartu nuen arnasa lehendabiziko aldiz umetokitik kanpo 1986ko maiatzaren 20an. Basainen ireki nituen begiak eta Seguran ireki nuen bihotza. Goierri eta Bilbon zabaldu zitzaizkidan begiak eta bihotza. Irlandan daude betiko nire begirada eta bihotz taupadak.

Hainbeste jaso ondoren zorretan sentitzen naiz eta emateko nire txanda iritsi dela iruditzen zait. Emakumezkoa izan arren, nire hazitxo jarri nahiko nuke euskalgintzan; nire hazitxo erein euskal literaturan. Zuekin elkarbanatu nire arnasa, begirada eta bihotz taupadak.



ALAITZ VIVES URBIETA

Txikitan sukaldeko leihotik ikusten nuen mendiaren ostean zer zegoen galdetu nion amari "-ze egongo da ba? Beste mendi bat". Hura horrela ote zen nire begiez ikusi behar nuela okurritu zitzaidan. Nire oinen pausopean mendi batek bestea nola dakarren ikustea, mendiak aran berria, aranak erreka, errekek ibaia, eta ibai-ko ura bezala, oinez ala bizikletaz ni hara.

MADDI SAN MIGUEL

1986ko azaroaren 27an jaio nintzen etxean, gurasoek hala nahi izan zutelako. Gamizen izan zen, hantxe igaro nituen bizitzako lehen urteak. Urte batzuk beranduago Larrabetzura joan ginen bizitzera, eta bertan jarraitzen dut oraindik ere, herri txiki eta lasaia, bizitzeko aproposa.

Horrez gain, idazle eskolaren kuriositateak deituta, betidanik idazten jakiteko izan dudana nahia bideratzeko asmoz izena eman nuen.



LEIRE ZUBELDIA DE ESTEBAN

1984an jaio zen Zizurkilen. Kazetaritzan lizentziatua da, eta egun, aldizkari batean egiten du lan.



FITO RODRIGUEZ

Idazlea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Bergarako IDAZLEESKOLAko irakaslea. EIEko kidea.



AUXTIN ZAMORA

Idazlea. Editorea. HATSA Elkarte-ko kidea.



ROSA URRETA

Beasaindarra. Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolako irakaslea eta Karmele Igartuaren lankidea.



JUAN KARLOS LOPEZ MUGARTZA

Idazlea. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea. ASPALDIKU Elkarte-ko eta EIEko kidea.



AINARA MAIA

1976ko ekainaren 6an Irunen sortua...

Maite dut ene ametsetan hegan egitea, ene sentimenduak poesien bidez antzeztea eta pentsamenduaren bidez urrutiko munduetara joanez galtzea... inor inoiz egon ez den toki zoragarri horietara joatea gustuko dut, eta ez dago liburuetan sartzea besterik modu onean bidaiatzeko.

Olerkari ameslaria



IÑAKI ODRIOZOLA

1961 ean jaioa, Elgoibartarra. Magisteritza egin nuen, lehenik, eta gero Filosofia, Alcalá-Mecoko unibertsitatean. Azken urteetan filosofia irakasle naiz Elgoibar-ko institutuan.

Antzerkilari amateurra izan naitzen bezala, idazle amateurra izatea ere gustatzen zait. Nire amak esango lukeen bezala, "irabazirik gabeko lanetan maisu".



XABIER LOPEZ

1979. urtean Lizarran jaio zen. Antzeppen ikasketak gauzatu ditu Nafarroako Antzerki Eskolan eta Dramaturgiakoak Madrilén. Antzerkiaren alor ezberdinetan dihardu. Iaz, Luis Matilla dramaturgoaren haurrentzat antzerkiari buruzko ikerketaren inguruko AS-SITEJ elkartearen sari nazionala jaso zuen.



MIKEL AGIRREGOMEZKORTA

Donostiako Amara zaharra auzoan jaio nintzen. Nire aitona-amonak Pedro Egaña kaleko etxe bateko atezainak ziren eta etxe hartako sotoan bizi ziren. Hantxe jaio nintzen ni.

Amara zaharrea ere nire zinera-ko grina jaio zen. "Carmelo y Praga" izeneko aretoa, larunbatero, anaia eta lehengusuak lagun, pelikuletako pertsonaiek.

Magisteritza ikasi eta ogibide bihurtu nuen. Lanbideak Urrietara paratu eta hantxe daukat finkatuta bizitokia.

Jakin-minak bultzatuta zenbait portutara iritsi naiz: antzerkia, dantza, zinea, literatura...

Espero dut lama hori urte askorako piztuta mantentzea kai berriak bisitatzera eramateko.



IONE SOLABARRIETA

Ondarroan jaio, Ondarroan bizi eta Bilbon lan egiten dut.

Hezkuntza munduan eman ditut nire lan urteak, gehienak irakasle moduan.

Zaletasunen eta agian beharrenean, abestea, edozein aitzaki dela medio. Horregatik, Ondarroako Musika Eskolako Kantaize koruko partaidea naiz.

Asko idatzi ez dudan arren orain arte, egin izan dudanetan, gustura ibili naiz. Hori dela eta, idazle eskolara etorri naiz, idazteko astia neure buruari eman eta gozatzeko.



JOSE LUIS LARRAÑAGA

Gipuzkoako Erreterian jaio nintzen 1965. urtean.

Nire ustez, denok ditugu bizitzan garatzen ez ditugun gaitasun eta trebetasun asko, lur egokira iritsi ez eta erne gabe garatzen diren haziak bezala. Adibidez, nik behatz luze eta arinak ditut, eta soldaduskan ez ninduten, "arritmi-koekin" batera jarri, aparte jarri banderaren zina egiterakoan; beraz, baliteke munduak punta-puntako pianista edo soinu-jolea galdu izana nire interes falta eta alferkeriagatik.

Orain, idazle Eskolaren lur oparo eta emankorrean neure idazmenaren hazia eraitera etorri naiz, erneko den landarearen fruituak mereziko duen esperantzaz.



ITZIAR GOMEZ

1964ko azaroaren 30an ikusi nuen argia Donostian. Baina nire sorreria, Erreteria.

Euskal Telebistaren sorrerak bideratu zituen nire lan mundurako urratsak.

Gaur egun gidoigile, esatari irakasle edo idazle lanetan eta etxe-koetan arituz betetzen da nire eguna.

Hitzen akrobazia dut irria, eguneroko arnasaldia. Badakit dela atrebentzia, ez jakinaren ausardia, baina umiltasunez oparitu nahi dizuet nire hitzen iturria.



ENEKO ARANBURU BARRENETXEA

(Tolosa, 1977). Zuzenbide Ikasketak egin zituen. Literatur munduan, "Lau Katu" literatur taldearen bidez sartu zen, bi urtetan hainbat errezitaldi eman eta liburuxka zabalduz. Tene Mujika akzesita bat jaso zuen orain urte dexente. Egun literatur sorkuntzaren hobekuntzan zentratu du bere literatur egunerokoa.



UDA HONETAN
Idazle Eskolako ikasleen lanak
igandero **7K**-an, **GARA**-ren aldizkarian



Euskal herrian eta euskal herrirako egindako igandekari bakarra

Irun Hiriko XL. Kutxa Literatura Sariak 2011



Irabazleei sariak emateko ekitaldia

Data: 2011ko maiatzaren 28a

Lekua: Amaia Kultur Zentroa

Helbidea: Pio XII kalea, 4. 20302 Irun

Ordua: 20:00etan (gutxi gorabeherako iraupena: 75 minutu)

Ekitaldian, lehiaketaren edizio honetako irabazleei sariak emateaz gain, hainbat artistak eta musika taldek hartuko dute parte, eta jende guztiarentzat izango da.

Informazio gehiago: www.kutxasocial.net-en

